

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

bihe - sarean - ehige

AURKIBIDEA

SARRERA. NOR GAREN.

IRAKASKUNTZA PUBLIKORAKO PROIEKTU ESPEZIFIKOA ETA BEREZKO
FINANTZIAZIO EREDUA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN KONPROMISOAK

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN HEZKUNTZA EREDUA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN KALITATE ADIERAZLEAK

HURRENGO URTEETAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXE
PUBLIKOEK IZANGO DITUZTEN ZENBAIT HEZKUNTZA ERRONKA
GARRANTZITSU.

1. Eskola-mapa.
2. Hezkuntza-proiektua eta irakaskuntza-kalitatearen hobekuntza.
3. Ikastetxeen zuzendaritza.
4. Ikastetxeen autonomia.
5. Gaitasunkako curriculumerako eredu pedagogikoa.
6. Elkarbizitza – eskola-giroa.
7. Hizkuntzak ikasteko esparrua.
8. Teknologia berriak.
9. Parte-hartzea: familiak eta ikasleak.
10. Beste hezkuntza-eremu batzuk: jangelak eta eskolaz kanpoko jarduerak.

SARRERA. NOR GAREN.

EHIGE-Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak Konfederazioak irakaskuntza publikoko gurasoen federazioak biltzen ditu: BIGE, Baikara, Denon Eskola, Ikas-Bi eta Eskola Txikiak. Hura da Euskal Eskola Publikoan ordezkariak handiena duen elkarteak, EAEko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak (IGE) % 90 baino gehiago biltzen baitu.

Kalitatezko euskal eskola publiko baten aldeko lana koordinatu beharra defendatzen du, borondateen batasunean, elkarrenganako errespetuan eta partaide guztien askatasunean oinarrituta. Eskola publiko euskalduna, progresista, askotarikoa, laikoa, berritzailea, autonomia eta demokratikoki kudeatutakoa nahi dugu. Haren bidez, familiek hezkuntza-prozesu osoan parte hartzea defendatuko dugu, eta familiok hezkuntza-erkidegoarekin batera erabakitzeke gaitasuna izatea, horien bidez lortuko baita irakaskuntza etengabe hobetzea.

BIHE zuzendaritzek osatutako elkarte bat da, eta bigarren hezkuntzako ehun institutu publikotan baino gehiagotan du ordezkariak. Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza publikoa etengabe hobetzen egiten du lan. Sarean lan eginda, ongi ezagutzen ditu elkartutako zentroen interesak, eta guztien intereseko gaiak defendatzen ditu hezkuntza-administrazioaren aurrean, bere masa sozialaren ordezkari gisa.

SAREAN, Euskal Eskola Publikoa Sarean, hezkuntzako profesionalen elkarte bat da. Zuzendaritza-, koordinazio- edo laguntza- zerbitzuak egiten ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta lehen hezkuntzako 178 ikastetxe publikotan du ordezkariak. Elkarteak irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzea eta defendatzea du helburu.

Hori iristeko, lehentasunezko bi helburu ezartzen dira: ikastetxeen arteko harremanak hobetzea eta Administrazioarekiko eta irakaskuntza publikoko eragileen arteko harremana bultzatzea.

Bi hauetatik sortzen dira jarraian azaltzen ditugun proposamenak: batera egindako hausnarketa-prozesu batetik eta agiri hau sinatzen dugun erakundeek antolatutako topaketen ondorioetatik. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoko hezkuntza-erkidegoaren zati handi baten partaidetzaren fruitu da agiri hau.

Hor zehazten diren helburuak eta ekintzak EAEko irakaskuntza publikoak aurrean dituen erronka nagusien sintesiaren lehen zatia dira, eta, beraz, agiriak funtsezko erreferentzia izan behar du euskal hezkuntzako plan, eztabaida eta proiektu oro eztabaidatzeko prozesuan.

Helburu hauxe dute agiri honetan aurkezten ditugun ekarpenek: gure ikasleei ahalik eta zerbitzurik onena bermatzeko ikastetxe publikoek abiatu beharreko hezkuntza-ekintzen ezaugarriak garrantzitsuenak zehaztea. Agiri hau Euskal Eskola Publikoa, Gaur Bihar ekimenaren barruan kokatzen da, halaber. Agiri hau sinatzen dugun erakundeak ari gara ekimen hori garatzen.

IRAKASKUNTZA PUBLIKORAKO PROIEKTU ESPEZIFIKOA ETA BEREZKO FINANTZIAZIO EREDUA

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoek proiektu espezifiko bat izan behar dugu hezkuntzaren kalitatea sustatzeko. Herri bezala aurrean ditugun oraingo eta geroko erronkei erantzun behar die proiektu horrek.

Bestalde, ulertzen dugu, oinarritzko printzipiotzat, irakaskuntza publikoaren inguruan eraiki behar dela Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sistema.

Bultzatu beharreko neurrien artean, ondokoak nabarmendu nahi ditugu:

Barneratzailetasuna eta erakunde arteko elkarlana

Eskola publikoak hezkuntza barneratzaile bat eskaini behar du. Han, ikasle bakoitzak ziurtaturik eduki behar du dagokion curriculum-erantzuna, zeren ikasleria osoaren eskola-arrakasta bermatzen baita horrela. Ildo horretan, hezkuntza publikoak jatorrizko desberdintasunak berdinduko ditu, eta ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokituko da curriculum mailan, haren garapen osoa bermatzeko.

Eusko Jaurlaritzako sailek, lurralde- eta toki-administrazioek, hezkuntza- eta gizarte-eragileek eta gainerako eragile guztiek era koordinatuan jardun behar dute, eskolaren hezkuntza-jarduera barneratzailea eraginkorra gerta dadin, eta jarraipena izan dezan esparru sozialean. Horrekin lotuta, ezinbestekoa da toki-administrazioek eta eskolak elkarlan estua izan dezaten, absentismoa eta ikasleek eskola uztea saihesteko.

Hezkuntza-administrazioak nabarmen hobetu behar du egungo eskolatzere-eredua, eta hezkuntza-sistema solidario bat sustatu, ikasleen artean ekitate handiago bat eta aukeraberndintasuna errazteko. Bide horretan, hezkuntzaren planifikazio egoki bat behar da, eta harekin aurre egin behar zaio egoerarik ahuleneke ikasleak ikastetxe gutxi batzuetan (ikasleen sailkapen soziala errazten dutenak, etab.) biltzeari.

Administrazioak lehentasunezko arreta eta baliabide gehiago eskaini behar dizkie eskolazona eta ikastetxe batzuei; egoerarik ahulenean diren eta bazterketa-arriskurik handiena jasaten duten ikasle askoko ikastetxeei, zehazki. Horri dagokionez, errolda-azterketak eta Euskadiko Eskola Kontseilua erreferentzia garrantzitsuak izango dira eskola-porrotik handieneko ikastetxeak identifikatzeko eta hezkuntza-politikak nahiz ezohiko hezkuntza-neurriak birzuzentzeko. Harreman iraunkor bat behar hezkuntza-ikuskaritzaren, aholkularitza pedagogikoko zerbitzuen eta ikastetxeen zuzendaritzen artean, hezkuntza-beharrak alde aurretik detektatzeko, erantzun-ekintzak diseinatzeko, haien eraginkortasuna neurtzeko eta baliabideen esleipen bidezko bat bermatzeko.

Ikaskuntzaren hobekuntza etengabea

Hezkuntza-politikak ikastetxe publikoen hobetze etengabe bat erraztu behar du. Ildo horretan, lehentasun osoa eman behar zaie kalitatezko barneko kudeaketa- eta ebaluazio-ereduei, langileen egonkortasun-politikei, zuzendaritzaren aitzindaritzari eta gainerakoei, ikastetxeen hobekuntza integral bati mesede egiteko.

Irakaskuntzako eta ikaskuntzako metodologia parte-hartzaile batzuk abiarazi behar dira, eta ikasleek beren kasa ikasteko metodologia batzuk. Horrekin lotuta, oso estrategia egokiak dira ebaluazio hezigarria, autoebaluazioa eta koebaluazioa, eta ikaskuntzen autoerregulazioan eta hobekuntzan eragin behar dute hirurek.

Komunikazio-bide iraunkor batzuk ezarri behar dira administrazioen eta ikastetxe publikoen artean, ikastetxeetarako erabakitzen diren hezkuntza-politiken eraginkortasuna diagnostikatzeko eta politikok berregokitzeko.

Hezkuntza-sistemaren finantziazioa

Eusko Jaurlaritzak hobetu egin behar du egungo inbestimendu maila hezkuntzan, gure inguruko herrialde garatueneraren mailan ezartzen duela horretara zuzendutako BPGren ehunekoak.

Hezkuntza publikoak finantzaketa-eredu espezifikoa bat izan behar du, eta finantzaketa horrek nahikoa izan behar du ikastetxe publikoetan sortzen diren egiazko erronkei eta eskakizunei erantzuteko.

Ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko baliabideak

Hezkuntza-sistema solidario bat proposatzen dugu, ekitatea eta aukera-berdintasuna ekarriko dizkiena ikasle guztiei. Bide horretan, ikastetxeek, diren sarekoak direla, baldin eta zerbitzu publikotzat hartzen badute hezkuntza, baldin eta hezkuntza barneratzaileko proiektuak (gutxiengo etnikoak, eskolan berandu hasi eta ikasteko arazo larriak dituzten ikasleak, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan direnak, hezkuntza-behar bereziak dituztenak...) garatzen badituzte, beharrezko baliabideak eduki beharko dituzte, proiektuok garatzeko eta eskola-arrakasta iristeko.

Ikastetxe publikoetarako baliabideak

Ikastetxe publikoek, Euskal Hezkuntza Sistemaren ardatz nagusi gisa, berezko finantziario maila bat eduki behar dute. Hark komuna izan behar du ikastetxe guztietarako, eta lagungarria, egungo egoera hobetzeko. Finantziario-eredu komunitik abiatuta, ikastetxe batzuek behar gehigarriak izan ditzakete, ikaspostuen eskaera handitu delako, egoera sozioekonomiko txarra duten ikasleengatik, berritzeko gogoa eta ekimena dituztelako, beren emaitzak hobetzen ari direlako... Bada, ikastetxeok finantziario gehigarri bat eduki behar dute. Ikastetxe bakoitzak egiten dituen kanpo- eta barne-ebaluazioek lagunduko dute alderdi horiek identifikatzen eta hausnarketa zein hobekuntza sustatzen. Administrazioak, ikastetxe publiko bakoitzak dituen ezaugarriak eta baliabideak aztertu ondoren, hark behar duen finantziario espezifikoa zehaztu beharko du. Ildo horretan, baliabideen erabilera egoki eta eraginkor bat bermatzeko formulak erabaki beharko ditu Administrazioak.

Kudeaketa ekonomiko deszentralizatua

Administrazioaren eta ikastetxeen ardura partekatuan oinarritutako kudeaketa ekonomiko bat eskatzen du irakaskuntza publikoak. Alde horretatik, ikastetxeek, behin aurreko puntuan adierazitako eran ziurtatu dutenean beren finantziarioa, beharrezko eskumenak eta autonomia izango dituzte, baliabideak modu eraginkorrean kudeatzeko, dibertsifikatzeko eta beren beharretara egokitzeko. Ikastetxearen kudeaketa

ekonomikorako proiektua izango da baliabideon erabilera egoki bat bermatzeko helburuak eta jarraitu beharreko prozedurak zehazteko tresna.

Ikastetxeek autonomia ekonomikoa izan beharko dute, ondoko hauek erabakitzeke: beren hornitzaileak, urte batzuetarako planak, proiektuak finantzatzeko hitzarmenak eta toki-zein lurralde-erakundeekin, fundazioekin eta beste batzuekin adostutako trebakuntza-jarduera osagarriak.

Administrazioaren eta ikastetxeen arteko elkarrizketan eta negoziazio iraunkorren oinarritu beharko dute eredu deszentralizatu horren jarraipenak eta hobekuntzak. Aurretik azaldutako ildoan, berrikusi egin beharko dira egungo homologazio-eredua eta baliabide informatikoak hornitzeko sistema, deszentralizazio-prozesuan aurrera egiteko.

Ikastetxe publiko berriak eta jadanik badirenen hobekuntza

Premiazkoa da ikastetxe publiko berriak eraikitzeke plan bat zehaztea, ikaspostu publikoen eskaeraren hazkunderari erantzuteke. Gainera, obren plan espezifiko bat zehaztu beharko da ikastetxe publikoetarako, eta egungo ikastetxeen parke publikoa berritzeko eta modernizatzeko beharrei heldu beharko die hark lehenbailehen. Era berean, beharrezkoa da administrazioen (Hezkuntza Saila eta EUDEL) arteko akordio zehatz batzuk iristea, haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoen mantentze-lanen, segurtasunaren eta langileen inguruan.

Elkarrizketa iraunkorra

Irakaskuntza publikoko hezkuntza-eragileek ezinbesteko erreferentzia izan behar dute, eskola publikoaren eredu parte-hartzaile eta deszentralizatu bat sendotzeko. Horretarako, elkarrizketa iraunkor bat izan beharko dute Hezkuntza Sailarekin, eta hark eragileon garapena eta elkarrizketa-gaitasuna bermatzeko baliabide ekonomikoak hornitu beharko ditu.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN KONPROMISOAK

Ondokoak dira Euskal Eskola Publikoaren eta eskola-erkidego bakoitza osatzen duten pertsonen konpromisoak:

1. Hezkuntzaren doakotasuna eta unibertsaltasuna eta hezkuntzarako eskubidea.
2. Hezkuntza-ekitate, -kalitatea eta -bikaintasuna hobetzea.

3. Eskaintza publikoa 0 urtetik 18ra hedatzea.
4. Euskara eta euskal kultura sustatzea eta garatzea.
5. Aniztasunaren hezkuntza-tratamendua, zeinak aukera-berdintasuna sustatzen baitu, eta ikasleen jatorrizko desberdintasunak berdintzea.
6. Giza eskubideen errespetuan eta aniztasun ideologikoan eta sozialean oinarritutako elkarbizitza demokratikoa.
7. Irakaskuntza- eta katedra-askatasuna.
8. Ikasleen nortasun pertsonala, psikologikoa eta soziala garatzea.
9. Baterako hezkuntza, bi sexuen arteko errespetua, analisi kritikoa eta hausnarketa.
10. Laikotasuna, hezkuntza etiko-gizalegezko eta soziala.
11. Eskola-erkidegoa osatzen duten sektore guztien partaidetza eta elkarlan demokratikoan oinarritutako eskola-antolamendu bat.
12. Oinarrizko helburutzat barnerapena, generoen arteko berdintasuna, herritartasuna, ikasleak gizarteratzea eta laneratzea... dituen ikastetxearen heziketa-proiektu bat.
13. Hezkuntza barneratzailea, gaitasunkako curriculum komun, malgu eta ikasle bakoitzaren beharretara pertsonalizatu batean oinarritua.
14. Ingurunea (Euskal Herria, hiria, auzoa...), ikuspegi sozial eta kultural batetik.
15. Berrikuntza pedagogikoa, sormena eta ekintzailtza kulturalaren, sozialaren eta ekonomikoaren bultzada.
16. Hezkuntza eleaniztun eta kulturartekoa.
17. Euskal hezkuntza-sistema solidario bat bultzatzea.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN HEZKUNTZA EREDUA

Hezkuntzaren bidez pertsonaren garapen osoa laguntzea da Euskal Eskola Publikoaren misioa. Ikastetxean, ikasleek pertsonak izaten ikasten dute, eta gizatiartze-prozesu hori besteekiko elkarbizitzan egiten da. Eskola-erkidegoko kide guztiek hezkuntza-eragile gisa jarduten dute.

Hezkuntza-prozesu horretan, ikastetxeak kanpoko beste hezkuntza-eragile garrantzitsu batzuekin partekatzen du bere funtzioa: komunikabideekin, elkarte eta erakunde soziokulturalekin, eta abarrekin. Ikasleak eragileekin dituen harremanetan, haiek jakintzak, ideiak, balioak eta arauak ematen dizkiote, eta elementuok eragin esanguratsua izaten dute haren heziketa-prozesuan. Ildo horretan, Euskal Eskola Publikoak *hiri hezitzailearen* testuinguruaren barruan kokatzen du bere hezkuntza-eredua.

Eskola publikoak euskal gizartearen berezitasunetara egokitzeko egin duen prozesua oso garrantzitsua izan da (euskalduntzea, eskolatzeko osoa, eskola-uzte maila oso apal bat iristea eta eskola-arrakasta handi bat, besteak beste). Horregatik, Euskal Eskola Publikoa erakunde kalitatezko, egonkor eta baliabidez ongi hornitu bat da gaur egun, eta egoki erantzuten die maila sozial guztietako familien interesei.

Irrititakoak iritsi arren, Euskal Eskola Publikoak ikuspegi dinamiko bat du hezkuntzaz, eta, orain, hezkuntzaren kalitatearekin eta eskola-arrakastarekin dago estu-estu lotuta haren hezkuntza-eginkizuna.

Eskola publikoaren hezkuntza-eredua hezkuntzaren ikuspegi soziokultural batean oinarritzen da, eta *Euskal Herrirako Curriculum*a agirian garatu dute. Ildo horretan, garrantzitsua da gure hezkuntza-ereduan gaitasun kognitiboak, komunikatiboak, osasun-prebentziokoak eta beste batzuk garatzea, eta ikastetxeak buru-belarri ari dira horretan. Eskola publikoaren hezkuntza-ereduak beste gaitasun batzuk garatzen ere laguntzen du, ordea, gizarteak gero eta gehiago eskatzen baititu, eta horrek esan nahi du oso benetan hartu behar direla aintzat hezkuntzari buruzko hiru gaitasun-ikuspuntu hauek:

- ***Hezkuntza-ikuspegi soziala:*** Eskola publikoa egungo gizartean dago integratuta, eta, horregatik, haren hezkuntza-ekintzek ikasleen gizarteratzea izan behar dute helburu. Egun, hor dira gure gizartean xenofobia, genero-indarkeria eta beste fenomeno sozial batzuk, edo kultura-aniztasuna, familia-eredu ugariak, gizarte-bazterketa eta beste zenbait erronka gogor. Eskola publikoak horiei aurre egiteko gai diren pertsonak prestatu behar ditu bere hezkuntza-ekintzen bitartez.

Ondokoak bezalako gaitasun eta trebetasun sozialak garatuta:

- ✓ **Harreman pertsonal adiskidetsuak garatzea eta gatatzak modu eraikitzailean kudeatzea, ikasgelan, ikastetxean eta bizi-ingurunean elkarbizitza eta elkarbizitza bultzatzeko.**
- ✓ **Helburu komunen inguruan batzea ahaleginak, talde-lana eta eskolako zein gizarterako egoerak hobetzeko inplikazioa bultzatzeko.**

- ✓ **Era positiboan ikustea pertsonen, taldeen, kulturen eta arrazen arteko aldeak eta aniztasuna, tolerantzian eta askatasunean oinarritutako elkarbizitza sustatzeko.**
- ✓ **Irekitasuna eta giza harremanak sustatzea, norbera bizi den erkidegoaren garapenean (ikasle bakoitzak ahal duen heinean) inplikatzeko.**
- ✓ **Arau sozialen balioa aztertzea, kritikatzeko eta aintzat hartzea, kode etiko eta moral zehatz bat hartzeko, eta norbera euskal gizartean zeharo integratzeko.**

gure gizarteak dituen gatazkei eta erronkei aurre egiteko moduko herritarrak edukiko ditugu.

- **Hezkuntza-ikuspegi psikologikoa:** Hezkuntzaren helburu nagusien artean, afektibotasunarekin eta pertsonen balioekin lotutakoak aipa daitezke bereziki, haiek osatzen baitute “izaten ikastearen” oinarria.

Azkenaldian, ugaritu egin dira gure gizartean jarrera autosuntsitzaileak, hurkoarekiko erasokorrak eta abar, edo mota askotako mendekotasunak, kontsumo kaltegarriak, depresioak... Horregatik, eskola publikoak gogotik lagundu behar du balioak eta familia-loturak sendotzen.

Ondokoak bezalako gaitasun eta trebetasun sozialak garatuta:

- ✓ **Norberak banaka eta talde gisa iritsitako lorpenak aintzat hartzea, autokontzeptu indartsu bat eta autoestimu orekatu bat garatzeko.**
- ✓ **Balioez hausnartzeko eta haiek argitzeko gogoeta-prozesuak garatzea, errespetuzko, sentiberatasunezko, irekitasunezko eta enpatiazko jarrerak bultzatzeko.**
- ✓ **Nork bere erronkak eta helburuak ezartzea, proiektu pertsonalak garatzeko, eta bizitzan jarrera baikor bat atxikitzeko.**
- ✓ **Nork bere nortasuna eraikitzea eta barneratzea, errespetuzko jarrera bat atxikitzeko gainerako errealitateen, kulturen eta herrien aldera.**
- ✓ **Lorpen-motibazioa, ahalegina eta hobetzeko grina lagun ditzaketen estrategiez hausnartzea, eskolako eta eguneroko bizitzako egoerei modu autonomoan nahiz taldeka aurre egiteko.**

gure gizarteak dituen gatazkei eta erronkei aurre egiteko moduko herritarrak edukiko ditugu.

- **Autonomiako eta ekimen pertsonaleko hezkuntza-ikuspegia:** Globalizazio-prozesu indartsu bat ari gara ikusten produkzio-prozesuetan eta ekonomiaren kudeaketan, eta krisi sakon bat, berriz, finantza-ereduan eta ongizate-estatuan.

Teknologia berrien sarkortasuna eta presentzia iraunkorra errotik ari dira aldatzen merkataritzari, enplegarritasunari, zientziari eta beste gai batzuei buruzko ikusmolde klasikoa.

Testuinguru sozial horretan, sormen handiko pertsonak eskatzen dira gero eta gehiago; irizpide bat duten pertsonak nahi dira; kritikatzeko, autonomoki jokatzeko eta lan berriei ekiteko gaitasuna dutenak.

Bere hezkuntza-metodologiaren bidez, eskola publikoak gaitasun hauek garatzen lagundu behar du:

- ✓ **Pertsona-, familia-, eskola- eta gizarte-egoerak aztertzea, zenbait planteamenduren ziurgabetasuna eta behin-behinekotasuna modu positiboan eta eraikitzailean balioesteko.**
- ✓ **Esku hartzeko plan pertsonalak diseinatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea, badaezpadako edo zalantzazko egoerak aztertzeko eta gainditzeko.**
- ✓ **Ekimenak asmatzea, esperimentatzea, adieraztea eta partekatzea, testuinguru txarretan ideia sortzaileak eskaintzeko.**
- ✓ **Eskola-garaian eta eguneroko bizitzan lanean saiatzeko eta irauteko jarrerak garatzea, norberaren hobetze-gaitasuna indartzeko.**
- ✓ **Kalitate-adierazleak zehaztea eta finkatzea norberaren eginbeharrei buruz, ikasleak lan ongi eginaren balioaz ohartarazteko.**

Gaitasun horiei esker, herritar jantziagoak iristen dira, eta arestian deskribatutako testuinguru sozialetan hobeki moldatzen direnak.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN KALITATE ADIERAZLEAK

Hezkuntza-kalitatea iristea prozesu dinamikoa da; ebaluazioaren kulturaren eta etengabeko hobekuntzaren oinarritua, eta ikastetxez ikastetxe zertzen dena. Desberdinak dira ikastetxe batzuetan eta besteetan ikasleen ezaugarriak, haien gizarte-, kultura-, hizkuntza- eta ekonomia-ingurunea, familiek hezkuntzaren parte hartzea, irakasleak eta gainerako langileak, azpiegiturak eta baliabideak... eta aldagai horiek taxutzen dute, hain zuzen ere, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektua. Horregatik, nola desberdina baita ikastetxe bakoitzaren abiapuntua, ikasleen erronkei eta beharrei ikastetxeak ematen dizkien erantzunen kalitatearekin egon behar du lotuta hezkuntza-kalitatea kontzeptuak.

Kalitate horren bilaketan, helburu hauetarantz zuzendu behar da ikastetxearen lana:

- Ikasle guztiek oinarrizko gaitasunak garatzen dituzte.
- Ikasle bakoitzak errendimendu egoki bat iristen du barruko eta kanpoko ebaluazio-prozesuetan.
- Eskola-erkidegoak erakundearen hezkuntza-kalitatean zuzenean eragiten duten baldintzak eta estrategiak sortzen ditu.

Ondoko adierazleak izan daitezke ikastetxe bakoitzaren ebaluazio-prozesuaren eta hezkuntza-kalitatearen hobekuntzaren orientatzaile:

1. Hezkuntza-erkidegoa eta ingurunearekiko harremanak.
 - Hezkuntza-erkidegoak ikastetxearen heziketa-proiektu bat (IHP) dauka, eta ikastetxeko eragile guztien parte-hartze demokratikoaren bidez adostu dira haren xedeak eta helburuak.
 - Ikastetxeak kalitaterantz eta berrikuntzarantz zuzendutako kultura bat dauka.
 - Familiek hezkuntzarekin duten konpromisoa eta ikastetxea-familia elkarlana.
 - Zonako, auzoko, hiriko... hezkuntza- eta kultura-zerbitzuekiko elkarlana.

- Hezkuntza-jarduera ez-formalak ere baditu bere irakaskuntza-planean, inguruko errealitate sozialarekin lotuak.
2. Jatorrizko desberdintasunak berdintzera orientatutako ikastetxea.
- Oinarrizko gaitasunak garatzera daude orientatuta ikastetxearen curriculum-helburuak.
 - Baditu behar beste baliabide, bai curriculum-helburuak iristeko, bai baliabideon erabilera eraginkor bat egiteko.
 - Aniztasunari erantzuteko ikastetxe-plan bat dauka zehaztuta ikastetxeak, eta hura garatzen ari da.
 - Ikastetxea bere emaitzak hobetzen ari da, eta hobekuntza hori kanpoko ebaluazioetan (diagnosiak, PISA, TIMSS...) nabarmentzen da.
 - Ikastetxeak programa espezifiko batzuk garatzen ditu, eta, horien bidez, ongi integratzen eta barneratzen, halaber, ikasleak: gutxiengo etnikoak, hezkuntza berezia, kulturartekotasuna...
3. Ikastetxearen proiektuarekin eta etengabeko hobekuntzarekin bat egindako irakasleak.
- Irakasleak kohesionatuta daude; taldean dihardute, eta bat eginda daude ikastetxearen hezkuntza-proiektuan (IHP), ikastetxearen curriculum-proiektuan (ICP), hizkuntza-proiektuan, elkarbizitza-planean, ikastetxearen etengabeko hobekuntza planean, eta abarretan ezarritako helburuak iristearekin.
 - Irakasleak bat eginda daude irakasle-lanekin, berrikuntzarekin eta esperimentazioarekin.
 - Irakasleak trebakuntza-plan iraunkor bat ari dira garatzen, ikastetxearen hobekuntza integraleko planetik abiatuak.
4. Zuzendaritza-aitzindaritza eta ikastetxe-kudeaketa.
- Zuzendaritza-talde finko batek zuzentzen du ikastetxea, aitzindaritza indartsu batekin. Hark irakasleak inplikatzeko eta motibatzen ditu, erkidegoaren komunikazioa eta partaidetza bultzatzen, gatazkak konpontzen, eta, gainera, bat eginda dago ikastetxearen heziketa-proiektuaren garapen pedagogikoarekin.
 - Ikastetxeak badu behar adinako pedagogia-, antolamendu-, ekonomia- eta langile-autonomia, bere plan guztietan zehaztuta dauzkan helburuak iristeko.

- Ikastetxeak hezkuntza-proiektuen antolamendu argi eta sekuentziatu bat dauka.
- Ikastetxeak kudeaketa-eredu sistematizatu bat dauka martxan, eta hezkuntza-eta antolamendu-prozesuen barneko ebaluazioan dago oinarrituta hura.
- Zuzendaritza-taldeak hezkuntza-esperientziak berritzeko eta trukatzeko sare batzuetan hartzen du parte, bere aitzindaritza pedagogikoa sendotzeko.

5. Ikastetxearen antolamendu orokorra.

- Irakasleek, gurasoek, ikasleek eta irakasle ez diren langileek partekatutako erabaki-hartze eredu bat dauka.
- Balioz, arauz eta erregelaz osatutako sistema bat du, eskola-giro ordenatu eta seguru bat bermatzeko.
- Ordutegiz, egutegiz, hezkuntza-zerbitzuz eta abarrez osatutako organigrama bat dauka; ikasleen ezaugarrietara eta familien beharretara egokitua, eta ikastetxe-erkidegoak adostua.
- Informazio- eta komunikazio-plan bat du.
- Bere burua kudeatzeko eta funtzionamendu jasangarri bat bermatzeko tresna egokiak ditu.
- *Mentoring* dauka, eta etorri berriak diren irakasleei lagun egiteko zerbitzua.
- Irakaslez eta irakasle ez diren langilez osatutako talde bat dauka taxututa, ikastetxearen heziketa-proiektua bermatzeko profil egoki batekin.

6. Ikastetxe berritzailea, erakundeekin eta beste ikastetxe batzuekin elkarlanean aritzen dena.

- Erakundeek zehazten eta sustatzen dituzten hezkuntza-proiektuak garatzen eta hobetzen laguntzen du ikastetxeak.
- Ikasleek hezkuntza-programa osagarri eta eskolaz kanpoko batzuetan hartzen dute parte, eta haien ikasleontzaren trebakuntza integrala osatzen dute; mota askotakoak izaten dira programak: kulturalak, artistikoak, kirolak, ikastetxe arteko trukeak, elkarlan-proiektuak, ekintzailak, ...
- Ikastetxeak era aktiboan hartzen du parte hezkuntza-zerbitzuek, ikuskaritzak, eta abarrek garatutako sareko trebakuntza- eta lan-jardueretan.
- Berrikuntza-esperientziak eta -proiektuak garatzen ditu, eta beste ikastetxe eta erakunde (nagusiki publiko) batzuekin elkarlanean aritzen da.

7. Ikastetxearen azpiegiturak eta baliabideak.

- Pertsonen segurtasuna bermatzeko azpiegiturak ditu.
- Baditu bere hezkuntza-jarduerak bere proiektuarekin koherenteki garatzeko beharrezko espazioak.
- Elkarlan-hitzarmenak edo -akordioak ezartzen ditu, ikastetxetik kanpoko baliabideak erabiltzeko.
- Baditu bere proiektu pedagogikoa garatzeko behar beste baliabide material, didaktiko eta teknologiko.
- Badu ikastetxeko erkidegoak instalazioak eta baliabide didaktikoak erabiltzeko ikastetxe-plan bat, eta baditu zenbait hitzarmen auzo-elkarte eta erakunde kultural batzuekin ere, ikastetxea ingurunera irekitzeko.

HURRENGO URTEETAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXE PUBLIKOEK IZANGO DITUZTEN ZENBAIT HEZKUNTZA ERRONKA GARRANTZITSU

EAEko ikastetxe publikoen erronkei heltzeko, iruditzen zaigu ezinbestekoa dela, jadanik aipatuez gainera, honako gai hauek ere arretaz aztertzea:

1. Eskola-mapa.
2. Hezkuntza-proiektua, irakaskuntza-kalitatearen hobekuntza.
3. Ikastetxeen zuzendaritza.
4. Ikastetxeen autonomia.

5. Gaitasunkako curriculumerako eredu pedagogikoa.
6. Elkarbizitza – eskola-giroa.
7. Hizkuntzak ikasteko esparrua.
8. Teknologia berriak.
9. Parte-hartzea: familiak eta ikasleak.
10. Beste hezkuntza-eremu batzuk: eskola-jangelak eta -liburutegiak.

Jarraian, horiek gauzatzeko printzipio, helburu eta zehazte batzuk garatzen ditugu, kontuan har daitezen irakaskuntza publikoaren kalitatea ziurtatzeko plan estrategiko bat egiteko. Arduradun politikoek bermatu behar dute kalitate hori ziurtatzea.

1. ESKOLA MAPA. HEZKUNTZA ESKAINTZA PUBLIKOA

Helburuak:

1.1. Eskaintza publikoa berrantolatzea, trebakuntza-sare publiko lehiakorrigo bat taxutzen lagun dezaketen ikastetxe eta proiektu integralak sortzen direla. Eskaintza zonaka berrantolatzeko orduan, oso kontuan hartu beharko dira ingurunearen hezkuntza-beharrak eta -eskariak, proiektu berriek ahalik eta kalitaterik eta eraginkortasunik handiena dutela bermatzeko.

1.2. Titulartasun publikoko ikaspostuak bermatzea, zonaka, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza osoan, baldin eta benetako eskaririk badago. Ildo horretan, oso garrantzitsua da hirigintza-hazkunderik handieneko zonetan ikastetxe publiko berriak sortzeko proiektuak gara daitezen, ikaspostuei dagokienez etorkizunean izan daitekeen eskaria planifikatuta.

1.3. Ongi arautzea ikastetxe publiko integralen (IPI) funtzionamendua, antolakuntza pedagogikoa, baliabide materialak eta langileak, kalitate eta hezkuntza-berrikuntza handiagoko proiektu integralak sortzeko baliabideak eta beharrezko ikastetxe-autonomia bermatzen direla.

1.4. Ikasgela berririk ez hitzartzea, eskariari aurre egiteko nahikoa ikaspostu publiko baden zonetan. Era berean, lehenbailehen sortu behar dira beste ikaspostu publiko batzuk, irakaskuntza publikoa presente ez dagoen zonetan edo etapetan edota egungo eskaintza nahikoa ez denean.

1.5. Haur-eskolak eta LH ere irakaskuntza publikoko eskola-maparen barruan sartzea.

1.6. Eskola txikien egoera espezifikoki aztertzea.

1.7. Behar espezifikokoak dituzten, eskolara berandu sartu diren eta bazterketa-arriskuan diren ikasleen eskolatzea baldintza egokietan egiten dela bermatzea, haiek hezkuntza-sisteman eta gizartean osoki integrazteko. Horri doakionez, hobetu egin behar dira egungo hezkuntza-baliabideak, ikasle guztiei aukera-berdintasuna bermatzeko.

1.8. Ikastetxe publikoen azpiegiturak hobetzeko plan integral bat ezartzea, eta, hor, ondokoak lehenetsiko dira: eskolatze-premiak, segurtasunari eta mugikortasunari buruzko araudira egokitzea, eskola-zerbitzuak hobetzea eta azpiegitura teknologikoak.

Oharrak - zehazteak:

-Jakina denez, ikastetxe publikoak berrantolatze prozesu bat izan zen 1996an. Orduetik, aldaketa asko gertatu dira hezkuntza-sisteman, arrazoi ugariengatik: jaiotza-tasak azken urteetan izan duen berroneratze progresiboa, hezkuntza-eskaintza haur-hezkuntzako lehen ziklo osora orokortzea, eskolatze-premien eta ikaspostu-eskaintzaren arteko desoreka, hizkuntza-ereduen bilakaera, gure hezkuntza-sistemara berandu heldu diren pertsonen eskolatzea, etab.

Aldaketok zaildu egin dute, latz, zona batzuetako hezkuntza publiko mailako eskariari erantzutea, eta eragin handia dute, bestalde, ikastetxe publikoen gerorako hezkuntza-eskaintzaren antolaketan. Honako zailtasun hauek aipa ditzakegu, besteak beste:

- Arreta maila apala, 0-2 tartean, hirigune handietan. Egun, oso urrun gaude duela 10 urte ezarritako helburutik, hau da, % 40ko arreta-tasa iristetik.
- Batxilergoko etapan berriro gertatzen ari den matrikulen gorakadak zailtasunak ekarri ditu eskariari erantzuteko, eta ikastetxe askok handitzeko premia dute.
- Nola lanbide-heziketako ikastetxe integral batzuk eratu diren berrikitan, berriz planifikatu behar da batxilergo-ikastetxeetan egun den heziketa-zikloen eskaintza. Ildo horretan, LHko ikaspostu publikoen mailako eskari osoari erantzungo zaiola bermatu behar da.

-Eskola-mapari buruzko 21/2009 Dekretuak, zeinaren garapena 2012-2013 ikasturtean amaitzen den, honako hau dio bere sarreran: «*Gomendagarria da egungo eskola-mapa berrikustea eta hobetzea, eta hura errealitate berriari eta datozen urteetarako aurreikusita dauden aldaketei egokitzea*». Arauak dio ikastetxe publiko batean ikaspostu bat edukitzeko eskubidea duela ikasle orok, eta administrazio publikoak jartzen duela eskubide hori betetzeko bidea. Horrekin lotuta, bermatu behar da eskola-barruti edo -zona guztietan eskainiko direla dagoen eskariari erantzuteko adina ikaspostu publiko.

Era berean, Administrazioak jarrera negoziatzaile bat eduki beharko du ikastetxeen zuzendaritzekin, eskola-zonak eta/edo ikastetxe bakoitzaren eragin-eremuak aldatzeko orduan.

-Hezkuntza-administrazioak eskola-mapa bat dauka egiteke oraindik, eta ondokoak egin behar lituzke hark: herritarren eskariari erantzun; eskola-zonak berrantolatu, eskaintza 0 urtetik batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasketetaraino heltzen dela; hasierako lanbide-prestakuntzarako programen / eskolatze osagarriko programen eskaintza handitu, eta irakaskuntza publikoa hezkuntza-sistemaren ardatzean kokatu.

Eskaintza publikoaren berrantolatzeko orokorrari heltzeko orduan, premia hauek hartu behar dira aintzat lehen-lehenik:

- Arreta berezia eskaintzea indize sozio-ekonomiko eta kulturean (ISEK) eta hizkuntzan baliorik apalenak dituzten zonei, eta, ildo horretan, baliabideak emango zaizkie ikastetxeei, ingurune sozialaren eta ikasleen abiapuntuko defizitei aurre egiteko.

- Ikasle etorkinak ikastetxe jakin batzuetan biltzen dira, eta horrek ez ditu batere laguntzen, ez haien harremanak, ez haien eskola-itxaropenak.
- Irakaskuntzaren planifikazioaren bitartez, aukera-berdintasuna bermatzea ikasle guztientzat; erkidegoko bi hizkuntza ofizialei dagokienez, bereziki. Ildo horretan, nabarmendu nahi dugu, berriro, hizkuntza-ereduak atxikitzeak ikasleak beren beharren arabera ez banatzea ahalbidetzen duela. Hala, A eredu zabaldago dago desberdintasun sozioekonomiko handiak diren zonetan eta etorkinen artean.

-Sakon heldu behar zaio eskaintza publikoaren egungo atomizazioari. Funtsezkoak dira beste ikastetxe publiko integral (IPI) batzuk sortzea eta etapa desberdinak ematen dituzten zona bereko ikastetxeen arteko koordinazioa, bai ikastetxe-proiektu integralagoak ahalbidetzeko, bai irakaskuntza publikoa sendotzen laguntzeko. Horren haritik, lehentasunezkoa da helburu hauek bermatzea:

- Ikastetxe integralak osatzeko beharra; beren baliabideak eta barne-funtzionamendua antolatzeke, berriz, ikastetxearen autonomian, zuzendaritza-taldearen aitzindaritzan eta eskola-erkidegoko sektore guztien partaidetzan oinarritutako eredu bat izango lukete ikastetxeok. Horrekin loturik, funtsezkoa da ikastetxe horiek sortzeko prozesuak inongo murrizketarik ez ekartzea ikastetxeetako langile kopuruan.
- Ikastetxe horien antolamendu-komplexutasuna handitzea, halaber, egungo zuzendaritza-ereduaren malgutze batez orekatu behar da, eta pizgarri batzuk emanda; ikastetxeak sendotzen eta baliabideak hobeki aprobetxatzen lagunduko dute pizgarriok.
- Ikastetxe publikoen arteko atxikipenak ikasleen matrikulazioan duen eraginetik harago joan behar du. Administrazioak atxikitako ikastetxeen arteko koordinazio pedagogikoa lagundu beharko du, urrats zehatz batzuen bidez, hezkuntza-proiektuen jarraitutasuna ziurta dadin. Halaber, zona bereko ikastetxe publikoek elkarri lagundu beharko diote, proiektu integralago eta irakaskuntza publikoaren kalitatea errazten duten batzuk garatzeko.

-Garrantzitsua da eskola-instalazioak hobetzeko eta beste ikastetxe publiko batzuk eraikitzeke plan bat abiatzea. Hezkuntza-administrazioak aurrekontuetan ahalegin handiak egin dituen arren, egungo premiek aise gainditzen dituzte egindako inbestimenduak. Egoera horrek zaildu egiten ikaspostu publikoetarako dagoen eskariari erantzutea eta hirigintza-hazkundeko zonetan hezkuntza-proiektu publiko berriak ezartzea.

Orobat, nahitaezkoa da egun diren ikaskuntza-eremuak sakon aztertzea, diziplinarteko, elkarlaneko eta izaera malguagoko metodologietan oinarritutako berrikuntza-proiektuei leku egiteke. Ildo horretan, ikastetxeetako esperientzia pedagogikoek orientatu egin beharko dute aldaketa hori.

2. HEZKUNTZA PROIEKTUA ETA HEZKUNTZA KALITATEAREN HOBEKUNTZA

Helburuak:

2.1. Ikastetxe publikoek berrikusi eta eguneratu egingo dituzte beren hezkuntza-proiektuak, beren egungo eta geroko hezkuntza-helburuak bermatzeko garatu behar dituzten hezkuntza-ekintzak egokitzeko.

2.2. Ikastetxe publiko guztiek ICPren, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren, elkarbizitza-planaren, kudeaketa-proiektuaren eta beste tresna batzuen bitartez diseinatu eta planifikatu behar dituzte beren hezkuntza-ekintzak.

2.3. Barne-ebaluazioko ereduak diseinatzea eta garatzea, maila hauek kontuan hartuta: ikasgela, etapa, ikastetxea.

2.4. Kudeaketa-ereduak (*Kalitatea Hezkuntzan*, hobekuntza-planak edo beste batzuk) abiaraztea ikastetxe publikoetan, antolamendu- nahiz hezkuntza-kudeaketa hobetzen laguntzeko.

2.5. Aplikazio informatikoen (irakaslearen koaderno digitala edo beste batzuk) esperimendua bultzatzea ikastetxe publikoetan, hezkuntza-prozesuen kudeaketan lagungarri izan daitezen.

Oharrak - zehazteak:

-Ikastetxeek eskola-antolamendu parte-hartzaile bat dute, egitura hierarkikoak gainditzen dituen. Eredu horretan sakontzeko, erabakiak hartzeko eredu demokratiko batzuk garatu behar dira, erkidegoko sektore guztien konpromisoa, denen artean erabakitzea eta erantzukizunen banaketa garbi bat bultzatzeko. Ikastetxe publikoek kode etiko bat eman behar diote beren buruari, bazterketarik gabeko hezkuntza bat eta eskola-erkidegoko kide guztien kide-sentimendua sustatzeko.

Ikastetxe publikoak bat egiten du bere ingurune sozialarekin, eta elkarlanean aritzen da tokiko erakundeekin, elkarteekin eta eragile sozialekin, hezkuntza-jarduera ez-formalak eta informalak garatzeko, jarduerok osatzen baitute ikasleek ikastetxean jasotzen duten heziketa. Harreman-esparru horretan, ikastetxe publikoak indartu egin behar du heziketa-eragile gisa eta sinergia barneratzaileen sortzaile gisa daukan rola bere ingurune sozialean.

-Ikastetxe publikoek ikastetxearen heziketa-proiektu (IHP) bat dute, hezkuntza-erkidegoak adostua, eta hark ikastetxearen nortasun-bereizgarriak jasotzen ditu, ingurunearen ezaugarrietatik abiatutik. Honako hauek zehazten ditu agiriak ikastetxeaz: haren planteamendu ideologikoa, elkarbizitza-printzipioak, balioak, kudeaketa-eredua, antolamendu-egitura, aniztasuna tratatzeko neurriak, tutoretza-jarduerako plana, elkarbizitza-plana eta IHP ebaluatzeko ereduak.

Hezkuntza-administrazioak bat egin behar du ikastetxeekin, eta haiekin batera arduratu behar du ikastetxe bakoitzaren IHPren garapenaz. Ildo horretan, oraindik neurri handiagoan lagundu behar du aholkularitzarekin eta baliabideekin ikastetxe mailako proiektu integralak garatzen, bitartekook aipatu proiektua gauzatzea berma dezaten.

-Ikastetxe publikoak ebaluazioaren kultura hobetzen ari gara. Ebaluazio-sistema batzuek ari gara hornitzen geure burua, eta iritsitako lorpenak eta hobekuntza-arloak identifikatzen laguntzen digute sistemok. Horrek, berriz, ebaluazio-ereduei eta ebaluazio-praktikari buruzko hausnarketa iraunkor bat eskatzen digu, haiek hobetzen jarraitzeko. Hezkuntza-administrazioak jadanik abiatutako barne ebaluazioko prozesuak bultzatzen jarraitu behar du, ikastetxeekin elkarlanean, prozesuok eragin handia baitute, bai

etengabeko hobekuntzan, bai ikastetxeek dituzten baliabideen erabilera eraginkorrean. Ildo horretan, eta ikastetxeen lana orientatzeko, garrantzitsua da hezkuntza-zerbitzuek barne-ebaluazioko jardunbide egokien adibideak eta ereduak egiten jarrai dezaten, haiek ebaluazio-kultura garatzen lagun dezaten.

Komenigarria da *Kalitatea Hezkuntzan* eta hezkuntzaren kudeaketa, antolamendua, parte-hartzea eta kalitatea hobetzen laguntzen duten beste esperientzia batzuk zabaltzen laguntzea. Ekimen horrek hezkuntza-administrazioaren bultzada sendoa eta konpromisoa izan behar ditu.

-Ikastetxe publikoek hezkuntzaren kalitatea ziurtatzeko tresnak eta estrategiak berenganatu behar dituzte. Horri dagokionez, beharrezkoa da, lehen-lehenik, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren eta hezkuntza arautzen duen araudi orokorraren arteko lotura antolatzea. Eskola-erkidegoak ongi ezagutu eta aprobetxatu behar ditu lege-esparruak eskaintzen dituen aukera guztiak, bere hezkuntza-proiektua definitzeko eta garatzeko.

Era berean, funtsezkoa da ikastetxe publiko bakoitzak garatuta eta jarduteko prest edukitzea bere IHP planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko tresnak: zuzendaritza-proiektua, ICP, hizkuntza-proiektua, elkarbizitza-plana, antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA), kudeaketa-plana, aniztasuna tratatzeko plana, IKT proiektua... Tresnok ikastetxearen hezkuntza-jarduera antolatzen eta moldatzen dute, eta, horregatik, aldian behin ebaluatu behar dira, eta etengabe hobetu. Horrela, ikastetxeak hobeki egongo gara babestuta etengabeko legegintza-aldaketen aitzinean.

-Hezkuntza-administrazioak baliabide gehiagorekin jarraitu behar du sustatzen berrikuntzako eta hezkuntza-kalitateko proiektuak garatzen dituzten ikastetxeen arteko sareko lana eta elkarlana. Berrikuntza-sare horietan ari diren ikastetxeek esperientzia berritzaileak partekatzen dituzte beren artean, eta, bestalde, baliabide garrantzitsu bat dira, beste ikastetxe batzuen gidari izateko, eta ikastetxeok poliki-poliki proiektu horietara atxiki daitezten lortzeko.

-Hezkuntza Sailak kudeaketarako tresna eta aplikazio informatikoen (koaderno digitala, etab.) garapena bultzatzen jarraitu behar du, haien laguntzaz irakasleek modu eraginkorragoan eta gardenago kudea baitezakete beren ikasleen ikaskuntza-prozesua.

3. IKASTETXE PUBLIKOEN ZUZENDARITZA

Helburuak:

3.1. Ikastetxe publikoen gobernantza hobetzea, eskola-aitzindaritzako eredu banatu batean eta ikastetxeen autonomia handiago batean oinarriturik.

3.2. Zuzendaritza-talde egonkorrek bermatzea, ikastetxearen heziketa-proiektuaren (IHP) helburuak garatuko dituen zuzendaritza-proiektu baten bitartez.

3.3. Eskola-aitzindaritzaren ardurak birdefinitzea, ikasleen errendimendua eta ikastetxeen eraginkortasuna nahiz kalitatea hobetzen maila handiagoan laguntzeko.

3.4. Zuzendaritza lanbide atsegin bihurtzea, zuzendaritza-talde lan-baldintzak hobetzen direla, eta pizgarriz eta aitopen profesional bezala osatu sistema askotariko eta malgu bat ezartzen dela.

3.5. Zuzendaritza-taldeak trebatzeko hasierako eta etengabeko sistema eraginkor bat zehaztea eta garatzea, eskola-aitzindaritza eraginkor bat egiteko gaitasunak garatzeko.

3.6. Zuzendaritza-taldeen partaidetza-sareak garatzea, zuzendaritzako esperientzia eta jardunbide egokien trukea laguntzeko.

3.7. Zuzendarien elkartean lan profesionala aitortzea, eta haiek administrazioekin eta beste hezkuntza-eragile batzuekin izan behar duten elkarlana bultzatzea.

Oharrak - zehazteak:

-Eskola publikoaren zuzendaritzak «eskola-aitzindaritza hobetzera» egon behar du zuzenduta. Egungo egoera erreferentziatzat dugula, honako hauetan egin behar da aurrera: funtzioen eta gaitasunen definizioa, hasierako eta etengabeko trebakuntza, zuzendaritza-proiektua, ordainsariak eta karrera profesionala. Ahalegin berezi bat egin behar da, eta zuzendaritzaren profesionalizatzea eta «zuzendarien gorputza» deritzana elkarrekin identifikatzea saihestu.

-Eskola publikoan, talde gisako aitzindaritza baten alde egin dugu, aitzindaritza partekatu eta banatu baten alde. Gure iritzian, eskola-aitzindariak balio eta dohain batzuk izan behar ditu; gainera, talde bat jakin behar du taxutzen, elkar osatzen duten eta estilo edo profil desberdinak dituzten pertsonekin.

-Giza talde sendo batek osatu behar du zuzendaritza-taldea, eta ondokoak jakin behar du hark: eginbeharrak besteen esku uzten; zereginak eta erantzukizunak identifikatzen; zeregin bakoitzerako pertsona egokiak izendatzen; kudeatzen duen giza taldearen lana gidatzen eta gainbegiratzen, eta ikastetxeko prozesu guztiak koordinatzen. Irakasle talde batek osatu behar du zuzendaritza-taldea, eta eskola-erkidegoaren konfiantza izan behar du hark. Hona zuzendaritza-talderako hautagairik onenak aukeratzeko kontuan izan beharreko ezaugarriak: dohain pertsonalak, gaitasun pedagogikoa, aurretiazko trebakuntza, zuzendaritza-funtzioetako esperientzia, etab.

-Zuzendaritza-taldeak IHP garatzen lagundu behar du, eskola-erkidegoaren gehiengoaren babesa duen zuzendaritza-proiektu baten bitartez. Zuzendaritza-proiektua da Administrazioaren, zuzendaritza-taldeen eta eskola-erkidegoko kideen arteko kontratu- eta elkarlan-esparruko funtsezko pieza. Kontratu-esparru horretan, Administrazioak besteekin batera hartu behar du proiektuaren ardura, eta proiektuan proposatutako hobekuntza-helburuak iristeko beharrezko baliabideak eskaini behar ditu. Halaber, eskola-erkidegoa osatzen duten pertsona guztiek egin behar dute bat proiektuaren garapenarekin.

-Eskola publikoko zuzendaritza-taldeak beren eskola-aitzindaritza eta beren esperientzia hobetzen ari dira. Trebakuntzaren bitartez, hobeto ezagutu behar dira honako hauek: arau-esparrua eta administrazio-prozedura; eskola-antolamendua eta kudeaketa; zuzendaritzan jarduteko gaitasun pertsonalak, eta ebaluazioa nahiz hezkuntza-kalitatea.

Adierazitako helburuak iristeko, trebakuntza-plan bat garatu behar da, maila hauetan antolatua:

- Aurretiazko trebakuntza: oinarrizkoa, zuzendaritza-funtzioetan jardun nahi duten irakasle guztiei zuzendua.
- Hasierako trebakuntza: hautaketa-prozesuaren eta izendapenaren bitartean; izaera praktikokoa, eta esperientzia handiko zuzendari batek gainbegiratua.

- Trebakuntza jarraitua: agintaldiak dirauen bitartean, eguneratze- eta hobetze-jardueren bitartez, eta zuzendaritza-taldeen sareko lana lehenesten dela.

-Hezkuntza-sistemak zuzendaritza egonkor batzuk sendotu behar ditu ikastetxe publikoentzat. Egun, ikastetxe publikoetako zuzendaritzak konplexutasun handia du; hezkuntza-administrazioek deitutako hautaketa-prozesu askotan, bete gabe geratzen dira zenbait zuzendaritza-postu, eta zuzeneko izendapenez esleitzen dira azkenean. Premiazkoa da zuzendaritza-funtzioa erakargarri bilakatzea. Horretarako, bi arlo desberdinetan egin behar dira urratsak:

- Ekonomikoan:
 - ✓ Dedikazioaren, trebakuntzaren eta hartu beharreko erantzukizunen mailako ordainsariak.
 - ✓ Berriazko osagarriaren ehunekoa finkatzea zuzendaritza-taldea osatzen duten pertsona guztientzat, agintaldi bakoitzaren amaieran eta ebaluazio positibo batekin. Finkatze horrek ez du bateraezina izan behar zuzendaritza-funtzioaz besteko lanpostu batzuk betetzeagatik jasotako beste osagarri batzuekin.
- Administrazioan:
 - ✓ Agintari publikoaren izaera ematea.
 - ✓ Zuzendaritza-karguak betetzea eta ebaluazio positibo batekin egitea merezimendu garrantzitsu bat izango da karrera profesionalean.
 - ✓ Hezkuntza-administrazioek aintzat hartuko dute zuzendariek duten esperientzia profesionala, bai aholkularitza- eta trebakuntza-zereginetarako, bai Administrazioaren beraren barruan inori erantzukizun handiko postuetan sartzen uzteko.

-Zuzendaritza-taldeak sare gisa aritzen gara. Nahitaezkoa da sareon dinamika indartzea, ondokoak lortzeko: ikastetxeen arteko elkarlana; hezkuntza-politiken balioespena egitea eta hobekuntzak proposatzea, eta ikastetxe guztiak aurrera egiten dutela bermatzea. Ildo horretan, ikastetxeen elkarlana aitortzea eta indartzea beharrezko estrategia bat da ikastetxeen eta Hezkuntza Administrazioaren arteko harremana eta elkarlan iraunkorra ahalbidetzeko.

4. IKASTETXE PUBLIKOEN AUTONOMIA

1. Euskal Eskola Publikoaren autonomiarako legegintza-esparru bat garatzea.
2. Zuzendaritza-taldeentzako trebakuntza-plan bat garatzea, autonomiaren erabilera eraginkor bat ziurtatzen duena.
3. Kontratu-programen plan esperimental bat abiaraztea, hezkuntza-berrikuntzako urte anitzeko proiektuak garatzeko.
4. Zuzendaritza-taldeak gai ekonomikoetan eta langileenean dituen gaitasunak hobetzea.

5. Funtzionarioei dagokien egungo legegintza-esparrua aldatzea, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiekturako egokien diren irakasleak hartzeko.
6. Egungo legegintza-esparrua malgutzea, hobekuntza-plan eraginkorrakoak sustatzeko.

Oharrak - zehazteak:

-Ikastetxe publikoen autonomia garatzea da egungo hezkuntza hobetzeko esparruetako bat. Honela ulertzen dugu ikastetxe baten autonomia: «hezkuntza-proiektu edo -plan espezifiko bat gauzatu ahal izatea askatasun-marjina handi batekin, misioan tarteko direnek berek ipintzen dutela hura bere testuinguruan, eta definitzen, betetzen, kontrolatzen eta balioesten dutela; eta proiektuak ingurune sozial zehatz baten beharrei eta eskariei erantzuten diela».

-Eskola publikoaren autonomiak urrundu egin behar du merkatu librearen kulturaren oinarritutako eredu neoliberaletik, hark ikastetxeen arteko aldeak handituko bailituzke. Halaber, autonomiak izaera korporatibista har dezan saihestu behar du eskolak; langileak berak zerbitzu publikoaz jabetzea litzateke korporatibismoa. Ebaluaziorik eta kontu-ematerik gabe, autonomia mota horrek errutina eta eraginkortasunik eza sortzen ditu baliabide publikoen erabileran.

Eskola publikoak autonomia integratzaile bat erabili behar du, hark kohesio soziala eta aukera-berdintasuna erraz ditzan, eta, hezkuntza-bikaintasuna eta ekitate soziala batuta, emaitzen hobekuntza bultzatzen. Askatasuna erantzukizunarekin printzipioak gidatuko du ikastetxeek darabilten autonomia.

-Nahiz eta administrazioek ezarri hezkuntza-jarduerak izango duen esparru orokorra, ikastetxe publikoek beren autonomia-marjina bat izan behar dute. Hari esker, beren inguruabar zehaztetara eta beren ikasleen ezaugarrietara egoki dezakete esparrua, ikasle guztien eskola-arrakasta iristeko. Hezkuntzaren arduradunek lanean jarduteko eta aipatu helburua iristeko baliabideak eta bitartekoak eman behar dizkiete ikastetxeei, eta ikastetxeek zorrotz eta eraginkorki erabili behar dituzte baliabideok. Beraz, bi alderdiak konbinatzen dituen arau-esparru bat behar dugu: ikastetxe guztiek errespetatu behar dituzten arau komunak ezartzen direla, batetik, eta ikastetxeei eman beharreko autonomia garatzeko esparru bat zehazten dela, bestetik. Bide horretan, egungo arau-esparrua malgutu behar du hezkuntza-administrazioak, eta, hala, eskola-erkidego bakoitzak azter eta erabaki dezake zer eskola-denbora (asteko eskola-orduak, eskolaz kanpoko jardueretarako orduak, eskola-egutegia...) datorren hobeto ikasleen ikaskuntzarekin eta familien interesekin. Erabaki horiek erkidegoaren adostasun maila handi bat behar dute; aldi behin ebaluatu beharko dira erabakiok, gainera, beren egokitasuna bermatzeko.

-Proiektuen bidez mamituko da ikastetxe publikoen autonomia. Ikastetxearen autonomia esparru pedagogikoan adierazi behar da lehenik, honako hauek zehazten direla haren curriculum-proiektuaren bitartez: curriculum-edukien egokitzapena eta zehazpena, irakaskuntza-jardueren planifikazioa, jarduera osagarrien nahiz trebakuntza-jardueren plana. Sistemaren ekitate handiago bat bermatzen duten eta ikasleen barneratzea indartzen duten proiektuak lagunduko ditu funtsean hezkuntza-administrazioak.

-Autonomia erabiltzeak kultura-aldaketa konplexu bat eskatzen du, eta hark, ikastetxeei ez ezik, Hezkuntza Sailaren lurralde mailako administrazio-zerbitzuei eta administrazio-zerbitzu zentraleri ere eragiten die. Ikastetxeek, berriz, ardura zabalagoak hartu beharko dituzte; orain arte hezkuntza-administrazioak ezarri eta arautu dituen esparruetan, gainera. Kultura-aldaketaren konplexutasunagatik, hobe da prozesua tipologia, ingurune eta konplexutasun maila desberdinetako ikastetxe gutxi batzuetan esperimintatzea lehenik; laguntzako zenbait tresna erabili beharko dira, gainera, prozesua poliki-poliki ezarri ahala. Gero eta autonomia handiagoko prozesu horrek zuzendaritza-taldean inplikazio berezi bat eskatzen du, bestalde, haiek aldaketaren aitzindari izan daitezten.

-Eskola publikoa askotarikoa da, berez, eta ikastetxe bakoitzaren nortasuna moldatzen duten aldagai hauek ditu oinarrian: kokapena, ikasleen ISEKa, irakasleen esperientzia, familien kultura maila, trebakuntza-eskaintza, tamaina, etab. Aldagai horien konbinazioagatik izaten du ikastetxe bakoitzak bere izaera eta, beraz, funtzionamendu eta garapen espezifiko bat. Ikuspegi horretatik, iruditzen zaigu bere ikastetxearen testuinguruaren errealitateara egon behar duela egokituta eta lotuta irakasle bakoitzaren jarduera profesionalak.

Irakasleen egonkortasuna da eskola publikoaren hobekuntza-arlo nagusietako bat. Zenbaitetan, funtzionario-sistemak lagundutako hizkera honi lotuta egon da ikastetxeetako irakasleen egonkortasuna: «plazak»; «lanpostuaz jabetzea»; «funtzionario jabeak»; «antzinatasuna», meritu nagusi gisa... Eskola publikoak hizkera berritu behar du, eta, oroz gain, ikastetxearen proiektuarekin lotutako eta, beraz, hezkuntza-errealitatea eta talde-lana hobeki ezagutzen dituen irakasle egonkor batzuekin identifikatu behar du langileen egonkortasuna.

-Egungo lanpostu-hornikuntzako funtzionario-sistema oztopo handi bat da eskola publikoaren egiazko autonomia garatzeko. Bere hezkuntza-proiektua daukan ikastetxe autonomo bat ezin da guztiz autonomo izan, baldin eta ez badu esku hartzen bere proiekturako irakaslerik egokienak aukeratzen. Ildo horretan, berriro aztertu behar litzateke irakasle-lanbidera heltzeko egungo sistema, eta ikastetxeek langileen alorrean duten autonomia hobetu behar litzateke, ondokoak egin ahal izateko: plaza jakin batzuen profila zehaztu; urte anitzeko berrikuntza-proiektuetan inplikaturik dauden irakasleen finkapena ziurtatu; iraupen laburreko ordezkapenak kudeatu...

-Autonomia ekonomikoak deszentralizazio-prozesu batekin batera joan behar du, eta honako hau da autonomia horren zuribidea: ikastetxeek era egokiagoan erantzun diezaiekete beren beharrei eta berak dauden inguruneari. Benetako autonomia ekonomikoak esan nahi du zenbait kudeaketa-gaitasun erabiltzeko bidea aitortzen zaiela ikastetxeei, nahiz eta funtzio batzuk eskuordetze hori Administrazioaren eta hezkuntza-erkidegoaren arteko ardura partekatuan oinarritzen den beti, eta «kontratu-programen» edo antzeko formulen bidez bideratzen den. Horretarako, ikastetxeek proiektu ekonomiko bat aurkeztu beharko diote hezkuntza-administrazioari, hezkuntza-erkidegoak baliozkotua eta zuzendaritza-proiektuaren helburuetan oinarritua.

Proiektu ekonomikoa gauzatzeko Administrazioaren baimena jasotzen duten ikastetxeak ikuskatuak izango dira, eta edozein pertsona juridikok dituen zerga-betebeharrak izango dituzte, ordenamendu juridikoa aplikatu daitezkeen neurrian.

-Autonomia ekonomikoa erabiliz gero, ikastetxeak gastuak egin ditzake; baita ikastetxearen eskakizunetara egokitutako eta ikastetxeko kideek eskatutako inbestimenduak ere. Halere, badira oraindik legegintza-esparru hertsiegi edo zorrotzegi batzuk, eta beharrezkoa da haien murrizketa, ikastetxeen gaitasun hori garatzeko. Horri doakionez, eta hezkuntza-administrazioak proposatzen dituen estandarrak betetzen direla betiere, proposatzen da aukera hauek zabaltzea:

- ✓ Egun baimendutako mugatik gorako erosketak egitea.
- ✓ Material homologatua erostea, erosketak hori hornitzaile homologatuetara mugatu gabe.
- ✓ Zuzendaritza-taldeak, Eskola Kontseiluarekin aurrez hitzarturik, dagokion ordain ekonomikoa eman ahal izatea legez dagokiena baino gehiago egiten duten eta IHPren garapenarekin konpromiso argi eta garbi bat ageri duten irakasleei.
- ✓ Zuzendaritza-taldeak aukera izatea jangelan eskaintzen diren eskola-menuak eraginkorki kudeatzeko, janik sobratzen ez den jangela-zerbitzu egonkor eta jasangarri bat eskaintzeko.
- ✓ Ohiko aurrekontuarekin egin ezin diren obra xeheen –mantentzea eta hobekuntza – kudeaketa eskaintzea ikastetxeei, 50.000 €-ko mugaraino. Unitate Teknikoko arduradunek ikuskatuko lituzkete obrok; gainera, hobetu egingo litzateke haien jarraipena eta, hortaz, inbestitutakoaren errentagarritasuna.

-Ikastetxeek autonomia izan behar dute, baliabide ekonomikoak berek kudeatzeko. Horrek esan nahi du ikastetxeek berek egingo dituztela, eta beren akordioen arabera, eskura dituzten baliabideak erabiltzeko beharrezko urratsak. Ikastetxeko zuzendaritza izango du erakunde osoaren baliabide ekonomikoen kudeaketaren erantzule nagusia, baina eskola-kontseiluari dagozkio hauek:

- ✓ Kudeaketa ekonomikorako ildoak ezartzea.
- ✓ Baliabideen kudeaketaren jarraipena egitea.
- ✓ Kudeaketa-kontua (zeinari emaitzen txostena atxikiko zaion) onartzea.

Gaitasun horretan ere ikastetxeek izango duten autonomia handiagoak bi hauek ekarri behar ditu berekin: jarduteko askatasun handiagoa, batetik; kanpoko agintaritzen zaintza egoki eta arrazoizkoa, bestetik. Horrek guztiak eskatzen du ikastetxeek sendotasun eta autokontrol-gaitasun handiago batzuk edukitzea; ildo horretan, beharrezkoa izango da, halaber, ikastetxeok beharrezko azpiegiturak eta tresnak edukitzea, dauzkaten baliabideen kudeaketa hori ordenatuki eta eraginkorki egiteko.

-Legez arautu behar da ikastetxeek, betiere eskola-kontseiluak aurrez onarturik, baliabide osagarriak eskuratu ahal izatea: hezkuntza-erkidegoak definitutako hezkuntza-proiektua gauzatzeko lirateke baliabideok.

Honako hauek izan daitezke, finantziario publikotik datozenek gainera, funts gehiago eskuratzeko bideak:

- a) Erkidegoaren legatuak edo dohaintzak.
- b) Fundazioen laguntza.
- c) Sektore produktiboen edo ekonomikoen ekarpenak.

- d) Ikastetxeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaina.
- e) Erakundeak egiten edo saltzen dituen produktuengatik eta ondasunengatik ordainketa.
- f) Beste sarrera batzuk. Aurreko ekitaldietako soberakinen kudeaketa...

Horren haritik, interesgarria izan liteke urrats batzuk egitea aurrerantz; onartu behar litzakete ikastetxe batek erakunde askotatik eskura lezakeela finantziazioa bere proiektuak garatzeko; hura «osagarria» litzateke, nolana ere, eta proiektuan ezarritako muga ekonomikoa errespetatuko litzateke beti.

-Oso harrera ona izan dute autonomia-proiektuek ikastetxe publiko batzuetan, eta horrek aholkatzen du ekimen hori indartzea eta poliki-poliki hedatzea. Ildo horretan, onuragarria litzateke ikastetxe publikoen autonomia handiagoko ereduak esploratzeko esperientzia pilotu bat abiatzea; behin eredu horiek ebaluatu ondoren, jakintza handiago batez definitu liteke ikastetxe publikoen autonomia erabiltzeko arau-esparrua.

Alor horretan, garrantzitsua da hezkuntza-zerbitzuak ere inplika daitezkeen esperientzia pedagogikoen eta curriculum-ereduen sustapenean, autonomia pedagogikoaren erabilera eraginkorra laguntzeko. Era berean, antzeko orientabide-izaera batekin garatu beharko dira proiektu- eta programa-eredu batzuk, eta, ereduotan, ikastetxeen antolaketa- eta kudeaketa-autonomia adieraziko dira, eta modu esperimentalean garatzen duten autonomian ikastetxeok darabiltzaten jardunbide egokiak (Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen hirugarren erabaki gehigarria).

5. GAITASUNKAKO CURRÍCULUMERAKO EREDU PEDAGOGIKOA

Helburuak:

5.1. Hezkuntza barneratzailea eta eskola-erkidegoko kide guztiak heziketa-eragile bihurtzea sustatzen dituzten metodologia pedagogikoak bultzatzea.

5.2. Elkarlana indartzea ikasgeletan, oinarrizko gaitasunak garatzeko estrategia metodologiko gisa.

5.3. Arlo sozialeko eta afektiboko gaitasunen ikaskuntza hobetzea, eta hezkuntza emozionala indartzea.

5.4. Ikasleen autonomia eta ekimena erraztea, kultura ekintzailea garatzen duten proiektuen bidez.

5.5. Ikasleen gaitasunen garapena eta ikaskuntza erraztuko dituzten metodologia didaktikoetan eta psikopedagogikoetan trebatzea irakasleak.

5.6. Gaitasun desberdinetako ikasleekin aritzeko trebatzea irakasleak.

5.7. IKTen erabilera didaktikoan trebatzea irakasleak oraindik, ikasleen ikaskuntza autonomo eta elkarlanean oinarritua ahalbidetzeko.

5.8. Diagnosi-ebaluazioak eta barne-ebaluazioak aprobetxatzea, ikaskuntza hobetzeko tresna gisa.

5.9. Irakasleek curriculum-material digitalak sor eta molda ditzaten sustatzea.

5.10. Sailen, zikloen eta etapen arteko lan diziplinartekoa eta elkarlanekoa sustatzea, curriculumak aipu dituen zeharkako gaitasunen ikaskuntza bermatzeko.

5.11. Ikaslearen ekimena, kultura ekintzailea eta ikerlanak erraztuko dituzten proiektu integralen garapena sustatzea.

5.12. Ikastetxeen arteko elkarlana sustatzea: elkarlan-sareak.

5.13. Hezkuntza-zerbitzuen aholkularitza-funtzioa eta eraginkortasun pedagogikoa hobetzea, aholkularien eta irakasleen arteko koordinazioa hobetuko duten formulak bilatzen direla.

Oharrak - zehazteak:

Curriculuma eta metodologia

-BIHE, SAREAN eta EHIGE elkarteek EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMA agiria proposatzen dute, Euskal Eskola Publikoak erreferentziako curriculum gisa erabil dezan.

-Hezkuntza Sailak Euskal Eskola Publikoaren funtsezko erreferentziatzat hartu beharko du EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMA, Hezkuntzako Euskal Legearen edo hura garatzeko arauen etorkizuneko moldaketa-prozesuan. Ikerkuntzak eta hezkuntza-jarduera berritzaile formalek eta ez-formalek orientatu behar dute ikastetxeen aurrerabide pedagogikoa.

-Ondoko helburu hauek ditu ikastetxe publikoen lan pedagogikoak: ikasle bakoitzak ahalik eta gehien garatzea bere gaitasunak, eta ikasleek hezkuntza-bikaintasuna iristea. Ildo horretan, lehenetsunak da ikasle guztiek oinarritzko gaitasunak jasotzen dituztela ziurtatzea.

-Hezkuntza barneratzaileko ereduak eskatzen digu zorrotz jarraitzea irakasleentzako zentratutako irakaskuntza-prozesu kognitibo batean oinarritutako metodologiak; hor, jakintza-esparruko aditua da irakaslea, eta ikaslea, berriz, jasotzaile bilakatzen da; normalean, jasotzaile pasibo.

-Aurrerantzean ere, ikaslea protagonista nagusi den ikaskuntzan oinarritutako hezkuntza-prozesuak abiarazten jarraitu behar dugu ikastetxeok. Hau da, jakintza (hezkuntzako lehengaitzat hartuta) ez da eskualdatzen; aitzitik, ikasleak kudeatu behar ditu bere ikaskuntzak. Aldaketa horiek ikaskuntza kognitiboak, emozionalak eta psikomotorrak hartzen dituzte barne.

Ikaskuntza-eredu horretan, ikasgelaren ezaugarrietara hobekien egokitzen diren ikaskuntza-jarduerak diseinatu behar ditu irakasleak: jarduerotarako beharrezko curriculum-materialak aukeratuko eta sortuko ditu; talde batean lan egingo du, eta bere irakaskuntza-praktikak ebaluatuko ditu.

Ikastetxe batzuetan, familiak eta ikasleak hezkuntza-eragile gisa aritzea errazten duten ikastetxe-proiektuak ari dira garatzen. Oso lagungarriak gertatzen dira proiektuok, eskola-erkidegoko kide guztiak (bereziki ikasleak) erakunde bateko gero eta kideago senti daitezkeen. Sareko lanaren bitartez, zabaltzen ari dira mota horretako esperientzia berritzaileak.

-Ikastetxe publikoak hobetzen ari dira aniztasuna tratatzeko duten plana, eta hura ikuspegi barneratzaileago batera egokitzen, bidenabar. Hezkuntza-laguntzako ikasgeletan oinarritutako estrategien ordez, beste batzuk ari dira sortzen orain, eta estrategia berriak ohiko ikasgelan bertan hobetzen dute aniztasunaren tratamenduaren eraginkortasuna. Ildo horretan, ondoko estrategia hauek erabili behar dira, aurrerantzean ere, integraziotik barnerapenera joateko: curriculuma ikasle bakoitzaren (ez soilik zailtasunak dituenaren) beharretara egokitzen duten curriculum-egokitzapenak; arlokako lana; talde interaktiboak... Dagokionean, haatik, berdin joko da hezkuntza konpentsatzailerara eta arreta pertsonalizatura.

-Hezkuntza-administrazioak esperimentazio pedagogiko berritzailea errazteko bere hezkuntza-politikak hobetzen jarraitu beharko du. Aurrera egiteko metodologia berriak saiatzeko beharrezko baliabideak eduki behar dituzte ikastetxeek. Emaizten ebaluazioak egin behar dira aipatu esperientzietan; ebaluazioon bitartez, izan ere, iritsitako arrakasta maila ziurta daiteke, eta hobekuntzarako bidea jar.

Berrikuntza metodologikoak jarduera barneratzaileak indartzera egon behar dute orientatuta. Ildo horretan, elkarlaneko ikaskuntza bultzatzeko jarduerak sustatu behar dira; estrategia metodologiko egoki bat izango da hori, gaitasunak garatzeko, eta, horrela, ikaskuntzaren autoerregulazioa, erantzukizunak hartzea, ikasle guztien parte-hartzea, ahoz komunikatzeko trebeziak, elkarri laguntzea, errespetua, enpatia, eta abar errazteko.

-Irakasleen baliabide didaktikoak dibertsifikatzen jarraitu behar da, metodologia didaktiko berritzaileak ahalbidetzeko. Ildo horretan, euskarazko material digital libreen garapenak izan behar du lehentasunetako bat.

Nahiz eta meritu handikoa den ikastetxeetan arestian aipatu ildoan egiten ari den lana, sakondu egin behar da oraindik honako alderdi hauetan:

- Hezkuntza barneratzaileko jardueren sustapena.
- Eskola-porrota saihesteko neurriak eta estrategiak.
- Hezkuntza-laguntza eta -indargarri espezifikoen hobekuntza.

Irakasleen trebakuntza

-Lehentasunezkoa da irakasleak irakaskuntza-ikaskuntza estrategia barneratzaileetan trebatzen jarraitzea, ikasleen autoikaskuntza, elkarlaneko ikaskuntza eta ikasleen diziplinarteko proiektuen garapena ahalbide ditzaten. Hezkuntza-jarduera arrakastatsu ugariaren jakintzan oinarritu behar du irakasleen trebakuntza nagusiak. Hartarako, sareko lana indartu behar da, hezkuntza-esperientziak partekatzeko.

-Irakasleen gaitasun digitala hobetu behar da, ikastetxeen heldutasun teknologikoa eta berrikuntza metodologikoa laguntzeko. Bide horretan, funtsezkoa da IKTek eskaintzen dituzten ahalak aprobetxatzea, diziplinartekotasuna eta elkarlana bultzatzeko.

-Curriculum eta eskola-antolamendua malgutu behar dira, ekintzara (eginez ikastea) orientatutako irakaskuntza-ikaskuntzako metodologiak ahalbidetzeko. Ildo horretan, hobetu egin behar da irakasleen trebakuntza ondoko metodologia hauetan: proiektutako ikaskuntza (PI), kasu errealen azterketa eta ebazpena, arazo teorikoen ebazpena, etab. Metodologiok IKTen ahalak aprobetxatzen uzten dute, eta haiek diziplinartekotasunera eta elkarlanera orientatzen.

-Egungo trebakuntza-eredua berrikusi behar da, ondokoak lehenesten direla: iraupen laburreko eta kalitate egiaztatuko ikastaroak, ikastetxeko trebakuntzan oinarrituak eta jardunbide pedagogiko onen zabalkundearen zentratuak, etab.

-Trebakuntza-eredu deszentralizatu baterantz jo behar da, ikastetxeek berek zehatz dezaten beren urteko trebakuntza-plana. Administrazioak elkarlan estuan aritu behar du ikastetxeekin, ikastetxeko trebakuntza-planaren garapenak dirauen artean, beharrezko baliabide finantzarioak eta aholkularitza pedagogikoa bermatzen dituela.

-Unibertsitateak erantzukizun handi bat du irakasle berrien hasierako trebakuntzan. Beharrezkoa da unibertsitate-ikasleak irakaskuntza-ikaskuntzako metodologietan trebatzea, eta metodologiok hezkuntza on bat bermatu behar dute gaitasun kognitiboetan, sozialetan eta emozionaletan. Irakasletzarako gaitzen duten unibertsitate-masterrak aipatu gaitasunak iristera orientatu behar dira. Lehentasunezkoa da elkarlan-hitzarmenak egitea unibertsitatearen eta ikastetxe publikoen artean, irakasleen hasierako trebakuntza praktikoa hobetzeko.

-Beharrezkoa da gaitasun sozialak eta kultura ekintzailea garatzen laguntzen duten proiektuen garapena eta zabalkundearen bultzatzea. Ildo horretan, lagundu eta ezagutarazi egin behar dira administrazio eta erakunde ugari bultzatutako ekimenak. EKITEN IKASI, BIZITZEN IKASI agiria erreferentzia garrantzitsua da hezkuntza-orientazioan, ikastetxe publikoetan ekintzaitza garatzen laguntzeko.

Barne- eta kanpo-ebaluazioak

-Ikastetxeetako barne-prozesuen ebaluazioaren hobekuntza erraztea, eredu batzuen bitartez.

-Diagnosi-ebaluazioen emaitzen erabilera eraginkorra. Eraginkortasun hori hobetzeko, Ikuskaritzaren, berritzeguneen eta ikastetxeen arteko koordinazioa eta elkarlana hobetu beharko dira, hobekuntza-planak diseinatzeko eta garatzeko. Horretarako, hezkuntza-administrazioaren laguntza handiago bat behar da, hobekuntza-planak egingarri bilakatuko dituzten beharrezko baliabideak hornitzeko.

-Kanpoko diagnosi-ebaluazioen emaitzen erabilera arduratsua: administrazioak bermatu behar du diagnosi-ebaluazioen pribatutasuna errespetatuko dela, eta ikastetxeen rankinga saihestuko dela. Ildo horretan, ikastetxe bakoitzak ebaluazioetan iristen duen emaitzaz gainera, beharrezkoa da Administrazioak «balio erantsiaren» kontzeptua ezar dezan, ikastetxe bakoitzaren hobekuntza-parametro erreal gisa.

-Kanpo-probak gauzatzeko eta zuzentzeko prozesua: ebaluazio-eredua etengabe berrikusi beharko da, egokia dela bermatzeko. Aldi berean, ikastetxeek behar beste denborarekin ezagutu beharko dituzte proben emaitzak, hurrengo ikasturtean garatu beharreko hobekuntza-plana prestatzeko.

-Baliabide espezifikoak edukiko dira eskura lehen hezkuntzako azken zikloan, etapako gutxieneko gaitasunak ez iristeko arriskua duten ikasleak dabilzan ikastetxeetan. Era berean, ikastetxeek behar besteko autonomia pedagogikoa izan beharko dute, hobekuntza-planak ikasleen benetako beharretara egoki daitezen, eta, hala, aukeraberdintasuna eta guztientzako kalitatea bermatzeko.

6. ELKARBIZITZA – ESKOLA GIROA

Helburuak:

- .1 .Elkarbizitza positiboaren eraikuntza bihurtzea ikastetxeen ardatz egituratzaile, ikastetxearen hezte-funtzioa (ez soilik irakaste-funtzioa) onartzen dela.
- .2 .Ikastetxeak osatzen ditugun pertsona guztiak zaintzea, eta haien garapenik handiena ahalbidetzea.
- .3 .Ikastetxeetan garatzen diren proiektu guztiak elkarrekin lotzea, eta ikasleen garapen osora bideratzea.
- .4 .Sinesmenetik lantzea elkarbizitza; ez premiatik.
- .5 .Elkarbizitza planifikatzea eta ebaluatzea.
- .6 .Ahalik eta gehien indartzea ikasleen garapen pertsonala eta akademikoa, curriculum ahaletako bakoitzaren beharretara egokitzen dela, eta haien eskola-arrakasta errazten dela.
- .7 .Eskola-erkidego osoarentzako partaidetza- eta hausnarketa-eremu bihurtzea ikastetxeak, hartarako behar diren egiturak sortzen direla.
- .8 .Protagonismoa ematea ikasleei ikastetxeko bizitzan, haien autonomia eta ekimena sustatzen direla.
- .9 .Elkarbizitza positiboaren garapena antolatzea, ikastetxe guztietan hura arautzen duten agiriak eratzten direla: Elkarbizitza-plana, AJA, aniztasunaren tratamendua, etab.
- .10 . Irakasleen, ikasleen, langile ez-irakasleen eta familien trebakuntza hobetzea: elkarbizitza positiboaren gaian, ikasgela-kudeaketan, gatazken konponketan, adimen emozionalean, etab.
- .11 .Koordinazio-eremuak sortzea irakasleen artean, bai ikastetxeen barruan, bai haien artean, elkarbizitza eta eskola-giroa hobetzen dituzten lan-sareak sustatzen direla.

Oharrak - zehazteak:

- Ikaskuntza integraleko eremu gisa ulertu behar ditugu ikastetxeak, eta, haietan, elkarrekin bizitzen ikasi behar dute ikasleek, elkarbizitza egiten, eta bizitzan zehar gertatuko zaizkien egoera ugariak kudeatzeko baliabideak garatzen. Gatazka saihesteko (ez soilik konpontzeko) erabiltzen den estrategia bezala ikusten dugu elkarbizitzako lana. Beraz, lehentasunezko elementutzat hartu behar da gaitasun sozialak eta afektiboak garatzea eskola-planifikazioan, -antolamenduan eta -kudeaketan.
- Ikasteko aukera gisa hartuko da gatazka; ez buruhauste gisa.
- Pertsona guztientzako toki seguru egin behar dira ikastetxeak; haietan, guztiek sentitu behar dute ongi hartzen dituztela, eta guztiek izan behar dute garatzeko aukera, beren diferentzia errespetatzen dela. Hartarako, egitura batzuk sortuko dira: banakako tutoretzak, bitartekotza-batzordeak, elkarbizitza-zirkuluak, partaidetza-batzordeak, etab. Haietan, hitza, hausnarketa, elkar laguntzea, norberak bere burua arautzea... izango dira tresna nagusiak.
- Elkarbizitza positiboko lan kontziente eta sistematiko horrek funtsezko bi alderdi hauek araupetzea dakar:
 - a. Eskola-antolaketa, baliabideetatik eta lana erraztetik:
 - ✓ Giza baliabideak, irakasle batzuek koordinaziorako, planifikaziorako, ebaluaziorako eta abarretarako denbora eduki dezaten beren lan-ordutegiaren barruan: boluntarismoa saihesteko.
 - ✓ Antolamendu-baliabideak: ordutegien, espazioen eta denboren

- planifikazioan.
 - ✓ Jarduerak garatzeko baliabide ekonomikoak.
 - ✓ Erkidegoko kide guztientzako partaidetza-batzordeak, bai eskola-orduetan, bai eskola-orduetatik kanpo.
- b. Curriculum:** ikaskuntza irakasgaitan banatzeak ez du mugatu behar gaitasun guztiak garatzea:
 - ✓ Arlokako programazio guztietan, helburu batzuk ezarriko dira, eta ondokoak garatuko dira haien bidez: gaitasun soziala eta herritarra, ikasten ikasteko gaitasuna eta autonomiarako nahiz ekimen pertsonalerako gaitasuna.
 - ✓ Garapen integrala laguntzen duten jarduerak planifikatuko eta ebaluatuko dira.
 - ✓ Irakasgaiak ebaluatzeko irizpideek elkarbizitzaren ikaskuntza ere hartuko dute barne.
 - ✓ Diziplinartekotasuna eta ikaskuntzaren esanguratsutasuna indartuko dira.
 - ✓ Ikasleen protagonismoa indartzen duten metodologiak bultzatuko dira ikastetxeetan: elkarlan-metodologia, ikaskuntza eta zerbitzu solidarioa, etab.
 - ✓ Ikasle bakoitzak bere gaitasunak ahalik eta gehien garatzea bermatuko da, ikastetxea egokitzen dela ikasle bakoitzarengana, eta ez alderantziz.
 - ✓ Tutoretzek garrantzi nagusi bat izango dute, eta haien helburuak elkarbizitza-planean integratuko dira.
- Elkarbizitza-gaietako trebakuntza eta entrenamendua eskaini behar zaizkie irakasleei, alde ugariatik:
 - a.** Ikastetxeen trebakuntza-proiektuak.
 - b.** Irakasleak horizontalki koordinatzea, irakasle taldeka.
 - c.** Irakaskuntzako jardunbide egokiak partekatzea.
 - d.** Irakasleen lan-sareak sortzea.
- Beren ikaskuntzaren protagonista bihurtu behar ditugu ikasleak, eta haien gaitasuna handitzen eta haiek parte hartzen lagundu behar dugu. Ikastetxeko eragile aktibo izan behar dute, eta lan-batzorde ugarian (hizkuntza-normalizazioa, Agenda 21, elkarbizitza-zirkuluak, ordezkarien batzarra, jangela...) aritu. Batzordeotan parte hartzea erraztuko zaie, eta haiek eskola-orduetan eta espazio egokietan egingo dira.
- Ikastetxeetako langile ez-irakasleak ere hezkuntza-langiletzat hartu behar dira. Haiek trebatzen eta haiek ikastetxeko erabakietan parte hartzen lagundu behar da.
- Familiek eragile aktibo izan behar dute ikastetxeetako bizitzan, eta ikastetxeok hori hala izan dadin erraztu behar dute, alderdi askotan:
 - a.** Harreman erraz eta etengabea ikasleen irakasleekin.
 - b.** Familiei ikastetxearen diagnostikoan eta helburuen planifikazioan parte hartzen uztea.
 - c.** Haiei ikastetxeko lan-batzordeetan parte hartzen uztea: elkarbizitzan, Agenda 21en, hizkuntza-normalizazioan, eta abarretan.
 - d.** Ordezkaritza-organo gorenean (OOG) eta IGEetan parte hartzea sustatzea.
 - e.** Familientzako trebakuntza-planak moldatzea.
- Elkarbizitza-planak arautuko du lan hori guztia, eta helburuak, egiturak, prebentzioa, esku-hartzea, eta abar jasoko ditu.
- Beharrezkoa da Hezkuntza Sailak bizikidetzaren positiboa sistematikoki lantzeko baliabideak ematea ikastetxeei. Gutxieneko ordu kopuru bat bermatu beharko die maila horretan, eta ikastetxeek diagnostikorako, planifikaziorako eta etengabeko ebaluaziorako erabiliko dituzte orduok.
- Beste erakunde eta elkarte batzuekin batera aritu behar da beti. Ez dezagun ahantz

guztion artean hezten dugula, eta eguneko 24 orduetan; horregatik, baterako ekintza-planak sortu beharko dira herrietan eta hirietan, erakundeen artean.

7. HIZKUNTZAK IKASTEKO ESPARRUA

Helburuak:

- 7.1. Ikasle guztien elebitasun eraginkorra bermatzea DBH amaitzean.
- 7.2. Egungo hizkuntza-ereduen sistema gainditzeko duen eta kohesio soziala eta kulturala errazten dituen hizkuntzak ikasteko esparru-lege bat adostea politikoki eta sozialki.
- 7.3. Etapa eta ziklo bakoitzean bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntzan iritsi beharreko gutxienezko hizkuntza-gaitasuna zehaztea, erreferentziatzat hizkuntzen Europako esparrua hartzen dela.
- 7.4. Diagnosi-ebaluazioak eta ikerlanak egitea, bi hizkuntza ofizialetan gutxienezko gaitasuna iristeko zailtasunak dituzten ikastetxeak eta ikasleak identifikatzeko.
- 7.5. Ikastetxe bakoitzean bultzatzea hobekuntza-planak, hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko tresna eraginkor bihurtzeko daitezkeen.
- 7.6. Proiektu eleanitzak bultzatzea ikastetxeetan, ikastetxeetako hizkuntza-proiektuen garapena ahalbidetzeko.
- 7.7. Irakasleek hizkuntzen irakaskuntzan duten gaitasun didaktikoa hobetzea.
- 7.8. Material didaktiko digitalak sortzea, nagusiki euskaraz, hizkuntzen ikaskuntzan berrikuntza metodologikoa errazteko.
- 7.9. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua egitea eta etengabe ebaluatzea bermatzea ikastetxe guztietan, eta hizkuntzen ikaskuntza integratuta orientatzea hura.
- 7.10. Hiru hizkuntzen curriculum-garapen bateratuari erantzuten dion erreferentziako eredu pedagogiko bat ezartzea.
- 7.11. Hitzarmen batzuk ezartzea erakundeen artean eta tokiko erakundeekin, euskarazko eskolaz kanpoko jardueren eta kultura- nahiz kirol-jardueren eskaintza hobetzeko.

Oharrak - zehazteak:

Hizkuntzen ikaskuntza integratuko legegintza-esparrua

-Bi hizkuntza ofizialen ezagutza eraginkorra eta atzerriko hizkuntzaren behar adinako ezagutza ahalbidetuko dituen legegintza-esparru berri bat adostea politikoki eta sozialki. Legegintza-esparru berriak gehiengo politiko eta sozialaren adostasuna izan beharko du, EAERako bizikidetzak- eta kultura-proiektu bat bermatzeko.

-Bi hauetatik abiatuta moldatu behar da lege berriaren esparrua: hizkuntzari buruz unibertsitate-esparruan eta beste esparru batzuetan (BCBL, etab.) egiten ari diren ikerketetatik, eta gure hezkuntza-sisteman garatutako esperientzien (HTB, INEBI, BINHEBI, Batxilergo Eleanitza, MET...) ebaluazioen emaitzetatik.

-Lege berriak, besteak beste, A eredia gainditzea ahalbidetu behar du, hark ez baitu bermatzen bi hizkuntza ofizialen ezagutza (hainbat azterlanek frogatu duten bezala), eta ikasleriaren zati baten bazterketa soziala errazten baitu.

Erreferentzia mailak

-Ikastetxeetan ikaskuntzaren programazioa errazteko eta ikasle guztiek gutxieneko hizkuntza-gaitasuna iristen dutela ziurtatzeko, etapan amaierari dagozkien ebaluazio eta eskakizun mailak ezarri beharko ditu legegintza-esparru berriak, gero legea garatzeko araudiak erdiko mailak eta epeak ezar ditzan (Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2008ko irizpena).

Euskara: lehenetsitako hizkuntza

-Nola euskara hizkuntza gutxitua den argi eta garbi, ikastetxeek adierazpide normal eta lehenetsuneko bihurtu behar dute beren irakaste-jardueretan.

Koofizialtasuna eta egiazko elebitasuna

-Euskal Eskola Publikoaren Legearen III. tituluko 18. artikulua arabera, egiazko gaitasuna iritsi behar da bi hizkuntzetan, bai ulermenean, bai ahoko zein idatzizko adierazpenean, ikasleek ohiko harremanetarako eta eginbeharretarako erabili ahal izan ditzaten bi hizkuntzok.

«Euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak hezkuntzaren esparruan, eta, beraz, haiek ikasteko eskubidea eta betebeharra dituzte ikasleek, eta berak erabiltzeko eskubidea dute, halaber» (EEKren 2008ko irizpena).

Errendimendu- eta hobekuntza-ebaluazioak

-Hizkuntzen ikaskuntza hobetzeko eta indartzeko planak garatzea ikastetxeetan, betiere lehenetsuneko arreta eskaintzen zaiela diagnosi-ebaluazioen eta barne-ebaluazioen arabera etapa eta ziklo bakoitzerako aurreikusitako hizkuntza-gaitasunak iristen ez dituzten ikastetxeei. Ildo horretan, ISEI-IVEIren ebaluazioak, Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostenak eta ikastetxe bakoitzaren barne-ebaluazioak hartuko dira erreferentzia nagusitzat, guztira eta ikastetxe bakoitzean behar diren baliabideak erabakitzeko.

-Diagnosi-probetan eskuratutako egungo datuek eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2008-2010 ebaluazio txostenak erakusten dute ikasleriaren zati handi batek ez dituela iritsi oraindik hizkuntza-gaitasuneko gutxieneko mailak. Egoera horri aurre egiteko, orokorki definitu beharko da zer baliabide eta hezkuntza-estrategia behar dituen ikastetxe bakoitzak, bai egoera horri aurre egiteko, bai egun diren bazterketa sozialeko arriskuak saihesteko.

Ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren eredia

-Hezkuntza-administrazioak erreferentziako eredu bat sortuko du, ikastetxe guztiei beren hizkuntza-proiektua eratzen laguntzeko; ikasleen tipologiari eta ikastetxearen testuinguru soziolinguistikoari egokituta moldatuko dute proiektu hori ikastetxeek. Hizkuntzak modu integratuan ikastea ahalbidetzea izango da erreferentziako eredu horren helburua; eredia zehazteko, beharrezko aholkularitza pedagogikoa izango dute ikastetxeek.

-Ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin eta curriculum-proiektuarekin egin beharko du bat ikastetxearen hizkuntza-proiektuak, ikastetxeko ikasle guztientzako ekitatea eta oinarritzko gaitasuna bermatuko dituzten hezkuntza-helburuetan.

Ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren bideragarritasuna

-Hezkuntza Administrazioak gainbegiratu beharko du ea ikastetxe bakoitzeko hizkuntza-proiektuak koherenteak diren hezkuntza- eta pedagogia-plangintzako tresnekin (IHP, ICP...), eta zonako egoera soziolinguistikoarekin, euskararen kasuan. Hala badagokio, hezkuntza-ikuskaritzak dagozkion zuzenketak proposatuko ditu hizkuntza-proiekturako, benetako elebitasuna bermatzeko, eta atzerriko hizkuntza ikasteko ezarritako helburuak bete daitezten.

Esperimentazioa eta ebaluazioa

-Hezkuntza Administrazioak esperientzia pilotu eleanitzak bultzatuko ditu ikastetxeetan, atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza eta bi hizkuntza ofizialen benetako ikaskuntza ongien eta modu integratuan bermatzen dituzten eredu pedagogikoetatik eta esperientzietatik abiatuta. Esperimentazio-proiektu horietarako, ikastetxeek behar duten aholkularitza pedagogikoa izango dute, hirugarren hizkuntza pixkanaka sartuta ere ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialen gutxieneko hizkuntza-gaitasuna iritsiko dutela bermatzeko.

-Esperientzia pilotu horiek garatzeko arau-esparruak malgua izan beharko du, bai hizkuntza bakoitzeko eskola-orduei dagokienez, bai esperientzian aplikazio mailei dagokienez. Horregatik, esperimentazio-esparruak izaera irekia izan beharko du, eta ondoko bi hauek sustatu beharko ditu: gero eta ikastetxe gehiagoren parte-hartze mailakaturia, eta orain urte batzuetatik hainbat ikastetxetan arrakasta handiz garatzen ari diren eleanitzasun-proiektuen jarraipena eta hobekuntza.

-Edonola ere, esperimentazio-esparruak tipologia desberdinetako ikastetxeen eta ISEK desberdinetako ikasleen partaidetza bermatu beharko du, azken ebaluazioa eskola-sistemaren aniztasunaren erakusgarri izan dadin.

-Ikastetxeetan esperientzia pilotu hirueledunen bideragarritasuna eta mailakako ezarpena bermatzearen, Hezkuntza Administrazioak hizkuntza-gaitasun egokia duten irakasleak planifikatuko eta eskainiko dizkie ikastetxeei, zentro bakoitzean erabakitako ikasgaien kalitatezko irakaskuntza bermatzeko.

Irakasleen prestakuntza

-Berrikuntza Zuzendaritzak irakasleak trebatzeko plan bat garatu beharko du, hizkuntzen ikaskuntza integratuaren alorrean irakasleek duten gaitasun psikopedagogikoa hobetzeko.

Berrikuntza metodologikoari lagunduko dioten baliabide teknologikoak, 2.0 web tresnak eta material digitalen erabilpeneko ikaskuntza gehitu beharko zaizkio trebakuntza-prozesu horri.

Truke-programak eta eskolaz kanpoko jarduerak

-Hezkuntza Sailak diruz lagundu behar ditu ikastetxeek garatu beharreko trukeko eta euskara indartzeko programa berezi batzuk; euskararen ahozko erabilera eta Euskal Herriko kultura ezagutzen laguntzea izango dira programon helburuak.

-Era berean, erakunde publikoek elkarlan-hitzarmenak ezarri beharko dituzte beren artean, bai eta fundazioekin eta erakunde pribatuekin ere, euskara edonon erabiltzea errazteko. Halaber, oso beharrezkoa ikusten dugu euskararen erabilera laguntzeko gurasoen federazioek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eta kultura- zein kirol-jarduerak finantzatzeko hitzarmenak egitea.

-Erakunde publikoek, bestalde, ikasleek beste herrialde batzuekin egiten diren truke-programetan parte har dezaten bultzatu beharko dute; atzerriko hizkuntzaren erabilera eta ezagutza errazteko, besteak beste. Modu berean, atzerriko hizkuntzetan irakasleak trebatzea bultzatu beharko du Hezkuntza Sailak: hizkuntza-trebakuntzako programen bidez, atzerrian diruz lagundutako egonaldiak lagunduz, etab.

8. TEKNOLOGIA BERRIAK

Helburuak:

8.1 Euskal irakaskuntza publikoaren ingurune birtuala sortzea, Euskal Eskola Publikoko sektore guztien informazio-, komunikazio- eta partaidetza-prozesuei euskarri bat emateko, eta prozesuok integratzeko.

8.2 Ikastetxe bakoitzeko ingurune birtual bat sortzea, handik ikastetxearen administrazio- eta hezkuntza-jarduera guztiak kudeatu ahal izateko. Ingurune horrek malgua izan beharko du, ikastetxe bakoitzaren beharretara eta ezaugarrietara egoki dadin.

8.3 Azpiegiturak garatzen jarraitzea: ikastetxeetan ingurune digital finkoak eta mugikorrek sortzeko plan bat egitea eta garatzea, Euskal Eskola Publikoa informazioaren eta jakintzaren gizaratean sar dadin bermatzeko.

8.4. Hezkuntza-eduki digitalak sortzea bultzatzea, eta haietara sartzeko bidea bermatzea, kode irekiko eta doako eduki-plataforma baten bitartez.

8.5 Ikastetxe publikoetako garapen teknologikoko eredu jasangarri batzuk esperimentatzea, tresna eta aplikazio teknologikoak ikastetxeko esparru guztietan eraginkorki erabil daitezten laguntzeko.

8.6 Diziplinarteko proiektuen garapena eta ikastetxe-esperientzia berritzaileak bultzatzea Administrazioetik, IKTen hezkuntza-erabilera eta ikasleen gaitasun digitalaren garapena laguntzeko.

8.7. Irakasleen trebakuntzarako eta elkarlan profesionalerako estrategiak garatzea, elkarlaneko ingurune birtual batzuen bitartez.

8.8 Software librearen erabilera bultzatzea, gero eta gehiago, ikastetxe publikoetan.

Oharrak - zehazteak:

Ingurune birtuala edo hezkuntza-sistemaren plataforma integrala

-Plataforma integralak online eskaini beharko ditu aplikazio guztiak: bai ikastetxeek behar dituzten administrazio- eta kudeaketa-izaerakoak, bai baliabide eta material didaktiko digitalak ere. Alde horretatik, Hezkuntzako oraingo domeinua berritzea proposatzen dugu, eguneratutako tresnak eta web-orriak abiarazita.

-Plataformak, orobat, beharrezko tresnak izango ditu, hezkuntza- edo gizarte-erakundeek eta ikastetxeek beren ekarpenak egin diezazkieten hezkuntza administrazioek edo beste erakunde batzuek argitaratzen dituzten proposamenei.

Ikastetxe publikoen ingurune birtuala

-Hezkuntzako plataforma birtualaren barruan, ikastetxe publikoek beren ingurunea izan behar dute. Honako oinarrizko zerbitzu eta baliabide hauek sortu eta eskaini beharko dira ingurune horretan:

Ingurune birtualera sartzeko baimen berezitzuz osatutako sistema bat, zuzendaritza-taldeentzat, irakasleentzat, ikasleentzat, familientzat eta publiko zabalarentzat.

Aplikazio telematikoak eta kudeaketa-tresnak: matrikulazioa, eskolako administrazio-zuzendaritza, ordutegi-sortzailea, notak, huts egiteak, aktak, koaderno digitala, liburutegia, ikastetxeko plan ekonomikoa, ikastetxeetako jantokiak eta garraioa, eskolaz kanpoko jarduerak eta osagarriak.

Ikaskuntzarako eduki digitalak eta curriculum-materialak gordetzeko biltegi bat, aholkulariak, irakasleak eta ikasleak libre sar daitezkeela.

Ikastetxe-intraneta eta -estranea (web-orria, posta-kontua, etab.).

Ostatatze-zerbitzuak eta ikastetxeko jardueren birtualizazioa garatzeko joateko beharrezko tresnak.

-Ikastetxe publikoek beharrezko baliabide teknikoak eta giza baliabideak izango dituzte, web-tresnen bidez jardunbide egokiak eta hezkuntza-esperientzia berritzaileak trukatzeko, elkarlana errazteko, etab.

Ikastetxeko IKT proiektua

-IKTak ikastetxearen hezkuntza- eta curriculum-proiektuan txertatzea bermatzeko hezkuntza-ekintzak eta metodologia-estrategiak zehaztu beharko dituzte ikastetxeek, IKT proiektuaren bitartez. Aipatu proiektuan, ikastetxeko bizitzako arlo guztietan IKTak garatzea eta erabiltzea bermatzeko helburu, estrategia, trebakuntza-ekintzak eta abar zehaztuko ditu ikastetxe bakoitzak. Horretarako, Hezkuntza Saileko hezkuntza-zerbitzuen aholkularitza pedagogikoa izango dute ikastetxeek. Eskola-erkidego osoak aritu behar du IKT proiektuaren moldaketan.

-Ikastetxeak ikaskuntzarako jarrita dauzkan baliabide teknologikoez arduratzen irakatsi behar zaie ikasleei, eta, horretarako, IKTez arduratzen den ikaslearen figura sortuko da ikasgelan.

-

-IKT proiektua hobetzeko, ikaskuntzan IKTen erabilera berritzaile bat egitea sustatu behar dute ikastetxeek. Ildo horretan, interesgarria litzateke zenbait esperientzia berri garatzea, ikasleak eta irakasleak tresna teknologiko batzuk (tabletak, telefono mugikorak, etab.) erabiltzen ohi daitezten.

IKT dinamizatzaila

-Ikastetxeek ikastetxeko IKT proiektuaren moldaketa eta garapena koordinatuko dituen irakasle/dinamizatzaila bat edukiko dute. Honako funtzio nagusi hauek izango ditu dinamizatzailak: IKT batzordea koordinatzea, IKTen hezkuntza- eta antolamendu-erabileran irakasleek eduki beharreko jarrerak eta gaitasunak garatzen laguntzea, ikastetxearen eta aholkulari pedagogikoen arteko harremana kudeatzea IKTei dagokienez, etab.

-Ikastetxeen proposamenak kontuan hartuta, Hezkuntza Sailak IKT dinamizatzailaren funtzioak zehaztu beharko ditu; gainera, beharrezko dedikazio-denbora eta pizgarri profesionalak ziurtatu beharko dizkio, hark bere funtzioak bete ditzan, eta aurrera jarrai dezan.

-Egin behar duen lanaren arabera trebakuntza frogatu beharko du IKT dinamizatzailak. Ildo horretan, Hezkuntza Sailak prestakuntza-plan berezi bat antolatu beharko du IKT dinamizatzailentzat, eta haiek nahitaez bete beharko dute. Trebakuntza horretan, honako hauek izango dute lehentasuna: ikasgelako jardueretarako IKTek dituzten aplikazio pedagogikoen ezagutzarekin lotutako edukiek.

Eskola-erkidegoaren IKT trebakuntza

-Ikastetxeko IKT proiektuaren barruan, eskola-erkidegoko sektoreen trebakuntza-helburuak zehaztu beharko ditu ikastetxe bakoitzak, hezkuntzaren alderdiei dagokienez irakasleen artean nahiz irakasleen eta familien artean online komunikazioa eta elkarlana ahalbidetzeko.

-Hezkuntza Sailak irakasleen oinarrizko IKT gaitasunak zehaztu beharko ditu, eta gaitasunok lortzeko irakasle guztiek behar dituzten trebakuntza-planak garatu.

-Unibertsitateak funtsezko eginkizuna izan behar du etorkizuneko irakasleen hasierako trebakuntzan. Ildo horretan, honako hau bermatu behar da beti: hezkuntza-sisteman sartzen diren tituludunek badakitela IKTak ikaskuntzan behar bezala aplikatzen.

-Guraso-elkarteetatik familien trebakuntza bultzatuko da, betiere ikastetxeekin koordinatuta, haiek IKT aplikazioak eta ikastetxeen elkarlan-tresnak erabiltzen ikas dezaten.

Ekipamendua

-Hezkuntza Sailak beharrezko ekipamenduak hedatzen jarraitu behar du, ikastetxeak ere gainerako sektoreen erritmo berean sar daitezzen informazioaren eta jakintzaren gizaratean. Leize digitala saihestuko duten eta ekitatea lagunduko duten hezkuntza-politikak eskatzen ditugu.

-Hezkuntza Sailak software librearen pean garatutako doako aplikazio telematikoak jarraitu behar du bidaltzen ikastetxe publikoetara, haiek online informazioa eta komunikazioa berma ditzaten. Ondoko hauek jotzen ditugu oinarritzotzat:

- Ikastetxeko intraneta
- Ikastetxearen web-orria
- Edukiak kudeatzeko aplikazioa: moodle, multimedia-edukientzako tokiko biltegia...
- Kudeaketa akademikoko aplikazioa, eskolako administrazio-zuzendaritza, koaderno digitala
- Kudeaketa ekonomikoko aplikazioa
- Garraioko eta jangelako aplikazioa
- Liburutegia kudeatzeko aplikazioa.

Aldian behin eguneratu beharko dira aplikazio horiek, garapen teknologikoak garatzen dituen hobekuntzak eta ikastetxeek egiten dituzten ekarpenak gehitzen direla.

-Hezkuntza Sailak beharrezko azpiegitura teknologikoa hobetzen jarraitu beharko du, ikastetxeak ingurune teknologiko seguru eta eraginkor bihurtzeko. Ondoko hauek jotzen ditugu oinarritzotzat:

- ✓ Pertsonen osasuna babesten duen sare informatiko bat. Ildo horretan, egungo sarearen egokitasunaren jarraipena egin behar dute hezkuntza-agintariek. Eraikin bat baino gehiagoko ikastetxeen kasuan, ikastetxeak sare bakarra izateko dauden baliabide teknikoak aztertuko dira.
- ✓ Tokiko sarean lan egiteko adinako ahalmena duen ikastetxe-ordenagailua/zerbitzaria.
- ✓ Banda zabaleko konexioa, ikastetxeko edozein tokitan, bi kanal independenterekin: bat, ikasgeletarako; bestea, kudeaketa administratiborako. Garrantzitsua da kontratatutako banda-zabalerek datuen komunikazio eta transferentzia arin bat berma ditzaten.
- ✓ Ikasgela digital malguak, osagai finkoak eta mugikorrek batera ari daitezten diseinatuta.

-Hezkuntza Sailak ikastetxeei oinarritzoko ekipamendu informatiko finkoak eta mugikorrek hornitzen jarraitu behar du, baliabideok ikastetxeko hezkuntza-eremu guztietara hedatzen dituela. Ondoko hauek jotzen ditugu oinarritzotzat:

- ✓ Ordenagailu pertsonal bana, ikasle bakoitzarentzat.
- ✓ Ordenagailuak kargatzeko eta gordetzeko armairuak
- ✓ Arbel digital interaktibo bat, ikasgela bakoitzerako.
- ✓ Orga mugikorrek, oinarritzoko elementu hauek dituztela integratuta: ordenagailua, proiektagailua.
- ✓ Proiektagailu finko bat, ikasgela bakoitzeko.
- ✓ Inprimatze- eta argitaratze-tresneria
- ✓ Ordenagailu pertsonal bana, irakasle bakoitzarentzat.

-Hezkuntza Sailak tresneriak eta zerbitzuak homologatzeko sistema bat ezarri beharko du, bete behar duten hezkuntza-funtziorako baliabideok kalitate eta prezio jasangarriak eta egokiak dituztela bermatzeko.

-Hezkuntza Sailak bermatu beharko du ikastetxe publikoek beren oinarrizko tresneria informatikoa berritzen jarraitzen dutela, eta, horretarako, industriak garatzen dituen berrikuntza teknologikoak hartuko ditu erreferentziazat. Ildo horretan, bi hauek egon beharko dute orientatuta ondoz ondoko BERRIZTU planek: tresneria informatikoen eguneratze teknologikoa laguntzera, eta ikasleek beren gaitasun digitala ingurune teknologiko berritzaile eta eguneratu batean gara dezaten laguntzera.

-Ikastetxe publikoek behar adinako autonomia izango dute beren tresneriak, aplikazio informatikoak eta zerbitzuak kontratatzeke, eta horiek Sailak jarritako oinarrizko tresnak hobetuko, osatuko eta errespetatuko dituzte. Ikastetxeek kontratatutako hornidurek dagokion homologazioa eduki beharko dute.

Ikastetxeen garapen teknologikoa eta ebaluazioa

-Beren IKT proiektuaren barruan, ikastetxeek IKTak garatzea eta erabiltzea planifikatu behar dute, eta horrek aurrerapen teknologiko jasangarri eta mailakatu bat ekarriko die, eta hezkuntza-proiektua garatzen lagunduko. Prozesu hori bermatzeko, ikastetxeak beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak eduki behar ditu.

-Ikastetxeetako garapen teknologikoko prozesua orientatzeko, ondokoak zehaztu beharko ditu hezkuntza-administrazioak: iritsi beharreko mailak; bere garapen maila egiaztatzeke ikastetxe bakoitzak bete behar dituen baldintzak, eta aurrera egiteke ikastetxeek izango dituzten erakunde-laguntzak. Ebaluazio-prozedura horren jasangarritasuna bermatzeko, inolaz ere ez dugu ikusten ikuskapen-funtziorako kanpoko enpresa bat kontratatzeke beharrik.

-Ikastetxeen etengabeko hobekuntzara bakarrik egongo da zuzenduta ikastetxeke IKT proiektuaren garapenaren ebaluazioa, eta ez ikastetxeen sailkapenera. Ildo horretan, bi hauek lagundu behar dute ebaluaziorako diseinatzen diren tresnek eta prozedurek: hobetu beharreko alderdiak identifikatzen, eta hobetzen laguntzeco orientabide zehatzak proposatzen. Orientabide horiek ere ikastetxeke IKT proiektua hobetzeco urteroko planean sartuko dira.

-Hezkuntza Sailak software librearen erabilera bultzatuko du ikastetxe publikoetan, era horretako aplikazioetan oinarritutako hezkuntza-proiektu berritzaileak sustatzen dituela.

IKTen hezkuntza-erabilera

-Hezkuntza Sailak pizgarri-sistema bat (baliabide materialak eta giza baliabideak) ezarriko du, eta honako hauek lagunduko du sistema horrek: IKTen bidez hezkuntza berritzen, eta guztien barneratzea, autoikaskuntza eta elkarlaneko ikaskuntza errazten dituzten hezkuntza-proiektuak garatzen.

-Ikastetxearen heziketa-proiektuaren hezkuntza-helburuak iristera orientatu behar da ikastetxeke IKT garapena. Bide horretan, garrantzitsua izango da honako hauek zehaztea:

- ✓ Ikasleen gaitasunen garapenean IKTei dagokien ekarpena.

- ✓ Ikastetxe bakoitzeko trebakuntza-beharrei erantzuten eta online trebakuntza nahiz ikastetxeko trebakuntza errazten utziko duten mekanismoak.

-Funtsezkoa da ikastetxe bakoitzeko irakasleen eta berritzeguneetako aholkulari pedagogiko guztien (ez soilik IKTetako) arteko elkarlan estua, bai arlo eta gai guztietan IKTen hezkuntza-erabilera on bat bermatzeko, bai ikastetxe bakoitzeko trebakuntza-beharrei erantzuteko.

9. PARTE-HARTZEA: FAMILIAK ETA IKASLEAK

Euskal Eskola Publikoa hobetzeko funtsezko ardatz bat iruditzen zaigu parte-hartzea.

Euskal Eskola Publikoaren Legeak hezkuntza-erkidego osoaren parte-hartzea bermatzen du, baina ikastetxeek eta erkidegoko kideek berek erabili behar dituzte beren eskubideak eta betebeharrak.

Familia: hezkuntza-eragile nagusia eta beharrezko laguntzailea

Helburuak:

9.1. Beren seme-alaben heziketan laguntzea familiei, familiak baitira haien heziketako eragile nagusiak eta arduradunak. Ildo horretan, lehentasunezkoa da tutorea-familia harremana.

9.2. Familien eta ikastetxearen arteko informazio- eta komunikazio-prozesuak indartzea, bai aurrez aurrekoak, bai egungo aplikazio telematikoen bidez egiten direnak.

9.3. Ikastetxe publikoetako hezkuntza-proiektuen eraketan eta garapenean parte-hartzera bultzatzea familiak, eta familiok hezkuntza barneratzaileari buruz duten trebakuntza hobetzea.

9.4. Familiek ikastetxe bakoitzean, lurralde bakoitzean eta Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten baterako ekintza indartzea.

9.5. Familiak trebatzeko prozesu batzuk planifikatzea eta abiaraztea, oinarritzat gai hauek hartuta: haien seme-alaben heziketa, eta beren heziketa-ardurak betetzeko zailtasunak dituztenentzako aholkularitza eta laguntza soziala nahiz ekonomikoa.

9.6. Familia-eskola konpromisoa: familiek ikastetxean dituzten eskubideak eta betebeharrak zehaztea, eta haien berri ematea; eskola-erkidegora berandu heldu diren familiei, zehazki.

9.7. Lana, eskola eta familia uztartzea, familien heziketa-ekintza errazteko, eta legez aitortzea familien zein ikastetxeen arteko koordinazioa ahalbidetuko duten baldintzak.

9.8. Ikastetxeak irekitzea erraztea, eskola-jarduerak eta eskolaz kanpokoak uztartzen direla, eta, adostutako formula batzuen bidez, eskola-erkidego osoak ikastetxeko baliabideak eta instalazioak erabiltzea ahalbidetzea. Ikasleen ikaskuntza eta familien eta ikastetxearen arteko harremana lagunduko duen ekimen guztiak bultzatzea, halaber.

9.9. Eskola-esparruan familiak ordezkatzeko dituzten organo gisa aitortzea IGEak, eta ikastetxeetako gaitan kontsulta- eta negoziazio-organoa eta erabakietan ere kide izateko eskubidea esleitzea haiei (ongi bereizten direla, erabakiotan, ikastetxe guztiei eragiten dietenak eta soilik ikastetxe-sare publikoari eragiten diotenak).

9.10. Familiei inongo galerarik gabe lanetik alde egiteko eskubidea aitortzea proposatzea lan-hitzarmenetan, beren seme-alaben tutoreekin eta irakasleekin elkar daitezela (seme-alaben eritasunagatik medikuarengana joateko duten eskubidearen antzera).

9.11. Ikastetxeko, udalerriko eta autonomia-erkidegoko eskola-kontseiluko kide diren gurasoek funtzio publiko bat betetzen dutela aitortzea, eta, horregatik, haiek baimen ordaindua jasotzeko eskubidea izatea, aipatu kide anitzeko organoen bileretara joan ahal izateko.

Ikasleak

Helburuak:

9.1. Ikaslea da hezkuntzako protagonista/ardatza, eta, aldi berean, heziketa-eragile, garapen integraleko bere prozesuan.

9.2. Ikasle guztiek kalitatezko irakaskuntza integral bat jasotzeko eskubidea dute, egungo zein etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

9.3. Bere gaitasunak ahalik eta gehien garatzen utziko dion banakako irakaskuntza jasoko du ikasle bakoitzak, guztientzako eskola-arrakasta bilatzen duen hezkuntza-sistema baten bidez.

9.4. Ikaslearen hezkuntzak nonbaiteko kide izatearen sentimendua sortu behar du. Halaber, gizarte-trebakuntza on bat bermatuko du, ikasleak gizarte moderno bat osatzen duen herritar rola har dezan, eta aktiboki parte har dezan gizarte horretan.

9.5. Eremita batzuk eta denborak batzuk erraztuko dira, ikasleak elkarriketaren eta elkarbizitzaren bidez konpon dituzan gatazkak.

9.6. Ikasleek hezkuntza-etapa guztietan parte-hartzea bultzatuko da.

10. BESTE HEZKUNTZA EREMU BATZUK: JANGELAK ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Familien behar berriei ari da erantzuten eskola. Familiek zerbitzu berriak eskatzen dituzte: seme-alabak zaintzeko eremuak, eta familia, lana eta eskola uztartu ahal izatea. Zerbitzu eta eremu berri horiek ez dira hartu behar soilik laguntzat, baizik eta baita hezigarritzat ere. Horregatik, ikastetxearen proiektuan egon behar dute aurreikusita, eta, zehazki, elkarbizitza-planean.

Eskola-zerbitzuak

Honako hauek dira eskola-zerbitzuak: ikasleei ikastetxean bertan ikastetxeaz kanpoko langile batzuen bidez ematen zaizkienak. Gizartearen eta familia taldeen

funtzionamenduan izan diren aldaketek sortutako premia sozial berriei erantzuteko ikastetxeak antolatutako eskola-jarduera osatzen dute zerbitzuok.

Egun, bateraezinak gertatzen dira lan- eta eskola-ordutegiak; sakon aldatu dira familia-egiturak eta -sistemak, eta horrek aldaketak ekarri ditu familia-talde barruko lanen banaketan eta esleipenean; lan-mugikortasun handia sortu da, eta ezkutatu egin dira behialako familia-talde zabalak. Horien guztien ondorioz, ahuldu egin dira familia-babeseke eta -laguntzako sareak, eta familiok ez dute jadanik beren ardurapekoak zaintzeko eta haien zaintza-lanak partekatzeko garai bateko laguntzarik.

Honako hauek dira ikastetxeek eskaini behar dituzten eskola-zerbitzu nagusiak:

-Jangela

-Garraioa

-Harrera- edo zaintza-zerbitzua

-Eskola-orduetatik kanpoko eskola-laguntzako jarduerak

-Ikastetxea eskola-orduetatik kanpo irekitzea.

Helburuak:

-Hezkuntzaren ikuspegitik, trebakuntza integrala erraztea, eta ikasle guztiak (egoerarik ahulenekoak, bereziki) eskolara joatea egingarriago bihurtzea.

-Lana eta familia uztartzea erraztea, ikusirik nolako bateraezintasuna gertatu ohi den normalean laneko eta eskolako ordutegien artean.

Eskola-jangelak

Helburuak:

10.1. Espazio horrek eskatzen duen hezkuntza-balioaz hausnartzea eta hura ematea.

10.2. Jangela ikastetxe-planean sartzea eta elkarbizitza-planarekin modu berezian lotzea.

10.3. Egungo jangela-araudia eguneratzea eta haren edukia aldatzea, beraren kudeaketaren alderdi guztiak berrikusten direla.

10.4. Elikadura-gaiak berrikustea.

10.5. Jasangarritasunari eta inguruneari lotutako elikagai-kalitate bat iristea.

10.6. Ikasleen adinari eta haien parte-hartzeari eta ardura-hartzeari gehiago egokituta antolatzea jangelak.

10.7. Jangelako langileen baldintzak eta trebakuntza eguneratzea.

10.8. Jangela-batzorde bat sortzea, Hezkuntza Saileko, Ehigeko, Biheko eta Sareaneko arduradunekin eta gaian adituak direnen partaidetzarekin, egungo egoeraren aurrean diren aukerak esploratzeko.

10.9. Ikastetxeetako egungo jangelen baldintzen ikerketa egitea, Sailaz kanpoko erakunde baten bitartez.

10.10. Egun jangelen zeharkako kudeaketan ikastetxe batzuetan egiten ari diren esperientziak aztertzea eta ebaluatzea.

Eskolaz kanpoko jarduerak

Eskolaz kanpoko jarduerak ez dira hartu behar haurren gozamenerako aukera hustzat; ez eta haien zaintzan familiek dituzten beharrak arintzeko irtenbidetzat ere.

Jolas-jarduerok hezkuntza-esparru ez-formaltzat hartu behar dira, zeinetan gaitasun sozialak eta emozionalak lantzen diren.

Hezkuntza ez-formaleko eta formaleko eremua esparru egoki eta bikaina da, ikasleak balioetan hezteko; zeren, eskola-curriculumaren osagarri denez, eta ez dagoenez eskola-antolamenduak eskatzen dituen mugei lotuta, hobeki zentra baitaiteke autonomia pertsonala eta elkarlana errazten dituzten jarreraren eta balioen garapenean.

Eremu horrek zerbitzu bidezko ikaskuntza bezalako ekimenak errazten ditu. Haietan, ikasleak jarrera solidarioak garatzen ditu, eta gaitasun sozialak eta elkarlanekoak, eta horiek guztiak ikaslearen eskola-ingurunearen eta ingurune sozialaren onuragarri gertatzen dira.

Jarduerok ikastetxeen hezkuntza-lana osatzen dute, eta ondoko alderdi hauek errazten dituzte:

- Aisialdi-baliabideak eskaintzen dizkiete ikasle guztiei arlo desberdinetan.
- Hezkuntza-erkidegoko kide izatearen sentimendu positibo bat sortzen dute.
- Eskolaz kanpoko jardueren garapenean autonomia eta ardura garatzen laguntzen dute.
- Ikaslearen autoestimua eta nortasun pertsonala garatzen eta sendotzen dituzte.
- Ikasleen arteko harremanak hobetzen eta sendotzen dituzte, eremu ez-formaletik.
- Eskolaz kanpoko jardueretara zabaltzen dute euskararen erabilpena.
- Ikasleek gizarte- eta komunikazio-trebetasunak berenganatzea laguntzen eta errazten dute.
- Sentikortasuna, sormena eta elkartasuna errazten dituzte.
- Desberdintasunak konpentsatzen dituzte.

© bihe, sarean, ehige

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
HARATAGO

bihe - sarean - ehige